

BIGARREN HEZKUNTZARAKO UNITATE DIDAKTIKOA

Nafarroako Parlamentua

Ikaslearen Lan-koaderno

José Ignacio Juanbeltz Martínez / Rubén Riancho Andrés



PARLAMENTO DE NAVARRA
NAFARROAKO PARLAMENTUA

«DEMOKRAZIA DA
GOBERNU-SISTEMARIK OKERREN,
KONTUAN HARTZEN EZ BADIRA
SAIATUAK IZAN DIREN
GAINERAKO SISTEMA GUZTIAK»

WINSTON CHURCHILL
ERRESUMA BATUKO LEHEN MINISTROA (1940-45, 1951-55)

Izenburua Nafarroako Parlamentua. Ikaslearen Lan-koadernoa
Bigarren Hezkuntzarako Unitate Didaktikoa

Egileak José Ignacio Juanbeltz Martínez eta Rubén Riancho Andrés

Itzulpena Ander Arana Bareño, Xabier Aristegieta Okiñena, Ainhoa Irazustabarrena Barriola,
Mikel Iriarte Zilbeti eta Ander Irizar Apaolaza

Argitalpena Nafarroako Parlamentua,
Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentuaren laguntzarekin

Diseinua KEN

Aurkibidea

Aurkezpena **7**

1. Aurretiko ideiak **11**

2. Non dago Nafarroako Parlamentua? **21**

3. Nork osatzen du Nafarroako Parlamentua? **29**

4. Parlamentu demokratiko bat **37**

5. Espainiako parlamentuak **45**

6. Zertarako balio du Nafarroako Parlamentuak? **53**

7. Nola egiten da lan Parlamentuan? **71**

8. Nafarroako Gorteak denboran zehar **77**

9. Itxiera-mapa **89**

10. Ebaluazioa **91**

11. Autoebaluazioa. koebaluazioa **95**

Aurkezpena



Unitate honetan zehar, Nafarroako Parlamentua aztertu behar dugu. Jakin nahi dugu non dagoen, nolakoa den, nork osatzen duen, noiztik existitzen den, zertarako balio duen, nola lan egiten den haren barruan, zer den...

Itxura batean, galdera errazak dira horiek. Erantzunak, agian, ez dira hain errazak izanen. Guretzat eta gure inguruko guztientzat oso garrantzitsua den zerbait deskubritu behar dugu: Nafarroako Parlamentuak bidea ematen du pertsonen arteko harremanak guztien eskubideekiko —eta, noski, gure eskubideekiko— errespetuan eta babesean oinarritu daitezen, halako moduan non gure erkidegoko bizitza bertako biztanle guztientzat onuragarria izanen baita. Unitateak, aldi berean, dauzkagun betebeharrak adierazten ditu, hain zuzen ere gainerakoien eskubideak errespetatzeko betebeharratik heldu direnak.

Unitate honetan zehar deskubrituko dugunez, Parlamentuaren inguruko erabakiek zuk ezagutzen dituzun pertsonekin zerikusia dute. Parlamentari nor den edo ez den, zure gurasoek, aitona-amonek, osaba-izebek erabakitzen dute; azken batez, 18 urte dituzten eta Nafarroan bizi diren pertsonak erabakitzen dute.

Zure etxean, institutuan, herrian hartzen diren erabaki asko Nafarroako Parlamentuak esaten duenaren menpe daude: zer institutu, errepide, ospitale... eraikitzen edo berritzen diren; zenbat zerga ordaindu behar dituzten zure gurasoek; zer lege bete behar ditugun... Parlamentuak, halaber, Nafarroako Gobernuak lehendakaria izendatzen du, eta Espainiako zein Europar Batasuneko lege orokorrak bere egin eta errespetatzen ditu.

Parlamentuari buruzko azterlana egiteko zenbait informazio-iturri izanen dituzue. Lehenbizi, lan-koaderno hau, non Parlamentuari buruzko testuak, argazkiak, irudiak, marrazkiak eta beste eskaintzen diren. Halaber, irakaslearen laguntza izanen duzu, eta hark zail suertatzen zaizuna azalduko dizu. Gainera, sarbidea izanen duzu Parlamentua bertatik bertara ezagutzeko, bi modutan hain zuzen ere:

- Modu birtualean: ibilbide bat egin ahalko duzu Parlamentuan barrena, parlamentariekin kontaktua eduki ahalko duzu, nahi duzuna galdetu ahalko diezu, hain webgunean sartu ahalko zara, agiriak kontsultatu ahalko dituzu, bideoak ikusi ahalko dituzu...
- Modu errealean: Parlamentua bisitatu ahalko duzu, haren egoitza ezagutu ahalko duzu, Osoko Bilkuren aretoko eserleketan eseri ahalko zara, eztabaida bat simulatu ahalko duzu...

Eskuratutako informazio guztiarekin, dossier bat egin beharko duzu, eta egindako ariketak jaso beharko dituzu bertan, modu antolatuan eta aurkezpen txukunarekin. Ahal bada, ordenagailua erabiliz egin beharko duzu.

Gai hau landuz, Nafarroako Parlamentua ezagutzea eta besteekiko harremanak hobetzea bilatzen dugu. Zure eskubideak eta nahi duzuna egiteko daukazun askatasuna bukatzen dira besteen eskubideak eta askatasuna hasten diren tokian. Parlamentuak bilatzen du gure gizartearen bizitza demokratikoki erregulatzea, legeen bitartez. Zure bizitzak eta besteekiko harremanek guztiekiko errespetua izan behar dute ardatz. Horretarako bidea, berriz, ekintzen zintzotasuna da.

Zure lan-koadernoari hasiera emateko, lehenbizi **azala** eginen duzu. Zure lehenengo egitekoa izanen da. Saia zaitez erakargarria eta originala egiten, eta ongi osatuta egon dadin. Baliabide informatikoak erabil itzazu. Maketa honetan ikusiko duzun bezala, honakoak eduki beharko ditu:

**Zure lan-koaderno
nola itxuratu**

- **izenburu** bat.
- **irudi** sendo bat, arreta deituko duena, balio demokratikoekin loturiko gai-
ren bati buruzkoa (bizikidetasuna, parte-hartzea...).
- **zure datu** guztiak.

Izenburua

irudia

Izena:

Arloa:

Maila:

Ikastetxea:

Irakaslea:

Azala egin ondoren

Bigarrenik, beste orri batean, lanarekin lortu nahi dituzun helburuak idatziko dituzu.

Esate baterako:

ZER LANDUKO DUGU?

○ Zer ikasiko dut Nafarroako Parlamentuari buruz?

○

○

○

○

EZ AHAZTU

Zure irakaslearen laguntzarekin, bisita ezazu Nafarroako Parlamentuaren Ikasgela Birtuala: www.parlamentodenavarra.es/ikasgelabirtuala

- egiazta ezazu nola funtzionatzen duen.
- zein informazio ematen dizkizun.
- lan on bat egiteko eskaintzen dituen aukerak.

1. Martxoko idusak

Irakur itzazu arretaz Thornton Wilderren *Martxoko idusak* eleberrian jasotako bi gutun hauek. Eleberrian, egunkari eta gutunen bidez, Julio Zesarren bizitzako azken urteak birsortzen dira. Julio Zesar Erromako lehendabiziko enperadorea izan zen, mediterraneo itsasoa inguratzen zuten lur guztien jabea. Gutunak ez dira errealak, alegiazkoak baizik, baina nahiko egoki simulatzen dituzte orain dela 2.000 urte baino gehiago gertaturiko egoerak. Eta balio dute pentsatzeko gure gizartean boterea nola transmititu behar den.

Zesarrek, Erroman, Brutori, Marseillan

ABUZTUAREN 17AN

«Esan beharrik ez dago nolako atseginez jaso ditudan zenbait txosten, iturri askotakoak, zure betebeharraren modu eredu-garrian bete duzula adierazten dutenak. Espero dezadan nire laudorio honek zu poztea, bi arrazoi direla medio: bietatik txikiena da egiten duzun guztiaz harro eta kontent dagoen adiskide batengandik heldutakoa dela; arrazoirik handiena, berriz, da ni ere Erromako estatuaren zerbitzari bat naitzela eta sufritzen dudala estatuari irain egiten zaionean eta gozatzen dudala hari prestutasunez zerbitzatzeko zaionean.

Jainko hilezkorrengatik, nahi nuke probintzia guztietatik halako albisteak iristea, Erromako menpeko guztiek legeak betearazteko kezka nekazina dutela eta paregabe energia. Basakeriazko beren ametsetik esnatu diren milaka izakiri Erroma maitarazi eta ohorazi diezu, eta Erromari beldurra izatea eragin diezu soilik halako punturaino non guztiok ekitatez beldur izan behar baitiogu.

Itzul zaitez, mutil maitea, beti egin behar gehiago eta gehiago eskatuko dizkizun herrialdera.

Erromako Inperioa Julio Zesarren garaian



Idazten dizkizudan gutun hau soilik zuk irakurtzekoa da, eta irakurri bezain laster suntsi dezazun gomendatzen dizut. Har ezazu behar duzun denbora guztia gutun honen erantzuna idazteko niri; nire postaria zure komenentziaren zain geratuko da.

Ez dut uste Errepublika batean, buruzagi baten erantzukizunaren artean, ondorengo izendatzea dagoenik. Ez dut uste, ezta ere, Errepublika baten buruak diktadore botereak eduki behar dituenik. Eta guztiarekin ere, diktadore bat naiz, eta sinetsita nago ezen Estatuarentzat beharrezkoak direla nire gain ezinbestez hartu behar izan ditudan botereak, eta sinetsita nago, era berean, nik nire ondorengo izendatzea izan daiteke-



**‘Julio Zesarren heriotza’,
Vicenzo Camuccinik egina. 1798**
Martxoaren 15ean (martxoko idusak) Zesar Senatura joan zen, ez joateko gomendioa egin bazioten ere. Zesar bere eserlekuan eseri zenean, Senatuko kide batzuek sastakaiekin eta dagekin egin zioten eraso. Zesarrek semetzat zuen Brutoren sastada hartu ondoren, honakoa esan zuen: *¡tu quoque, fili mi!* (zu ere bai, nire seme!). Zesarrek 23 sastada hartu zituen. Suetoniok kontatu zuen gertatua: «Orduan, konturatu zenean haren kontra alde guztietatik astintzen ziren ezin konta ahala sastakairen jomuga zela, bere burua togarekin estali zuen, eta ezkerreko eskuaz togako izurrak beherarazi zituen hanken akaberaraino, zerraldo duintasun handiagor erortzeko». Zesarren heriotzak beste gerra zibil bat eragin zuen Erromako Inperioko boterea eskuratzeko borroka zela medio.

ela bide bakarra Estatu hau beste gerra zibil luze eta unagarri batetik libratzeko. Zuk eta biok elkarrizketa luzeak izan ditugu gobernuaren izaerari buruz eta gure herritar erromatarrei garai hauetan beren burua gobernatzen uzteko aukerari buruz bai eta uzte horren norainokoari buruz ere.

Ez gara beti egon ados herritarrek beren burua gobernatzearen zabaltasunari buruz. Orain uzten duzun postu horretarako izendatu zintudan zertarako eta ikasteko, administrazioaren eguneroko jardunaren bitartez, zein proportzio handitan gertatzen den postuak betetzen dituzten gizakiek —soldadu hutsen postuak, esaterako— beren gaitetik daudenen menpe egotea.

Orain desio dut hiriburuan antzeko toki bat zuk bete dezazun, eta zeure kabuz deskubritzea Italian gure herritarrek bizi duten egia horren gisakoa dela. Desio dut zuk pretore postua bete dezazun.

Zure koinatu Casio izendatu behar dut, zurekin batera zerbitza dezan. Desio dut zu hiriko pretorea izatea; bi lanbideetatik zailena da hori, jendaurrean ageriagoen dagoena eta niregandik hurbilen dagoena.

Jada esan dudan bezala, uste dut gure herritarren jarrera eta penintsulako egoera politikoa ezagututa, nire ondorengo izendatu beharra dudala. Egia da nire tokian dagoen batek ondorengo izenda dezakeela, baina ezinezkoa du postu horretan berretzea. Gauza bat badago zeinetan gizaki guztiak berdin ezjakinak diren: etorkizuna. Ondorengo batek bere burua berretsi behar du.



Julio Zesar

Bide batzuetan, berriz, bizirik nahiz hilik, oraindik ere laguntzarik eman ahal diot nire ondotik datorrenari. Eta mundua administratzeko metodoetan sarbidea ematea da laguntza hori, eta harekin bestaldean lor daitekeen informazioa eta esperientzia partekatzea. Hiriko pretore gisa, zure esku izanen dituzu laguntza horiek.

Egunetik egunera konturatzen naiz nire bitzta edozein unetan eten daitekeela. Ez ditut etsaien aurka erabili nahi segurtasuna emanen lidaketen babesak, baldin eta nire mugimenduen trabagarri badira eta adimena aztoratzen badidate.

Eguneko ordu askotan, hiltzaile bati ez litzaioke zail gertatuko ni suntsitzea. Arrisku horiek aitortzeak nire ondorengotzaz pentsatzera bultzatzen nau. Semerik izan banu ere, ez dut uste buruzagitza aitatasunaren bidez transmititzen denik. On publikoa maite duten eta hura administratzeko dohainak eta entrenamendua dutenena da buruzagitza. Agintaritzea gorena zeuretzat hartu nahi duzun ala ez zeuk erabaki deza-kezu.

Arren eskatzen dizut gai honi buruz pentsatzen duzuna esan diezadazun».

Brutok Zesarri

BEREHALAKO ERANTZUNA

«Eskertzen dizut laudorioa. Eskertzen dizut nire lanbidean denbora guztian eman zenidan laguntza. Onartzen dut hiriko pretorea izatea, eta espero dut kargua halako moduan betetzea non eginkizun hori niri emateko izan duzun iritzi onari eutsi ahal izanen diozun.

Aipatzen duzun azken lanbidea, berriz, ez dut neure gain hartu nahi. Hura errefusatzeko arrazoiak zure gutunean bertan daude. Utzidazu zeure hitzak aipatzen: ez dut uste Errepublika batean, buruzagi baten erantzukizunen artean, ondorengoa izendatzea dagoenik. Zesar postua Zesar batek beste inork ezin du bete; hutsik geratzen bada, lanbide horrek eta botere-metaketa horrek nahitaez bukatu behar dute. Jainko hilez-kerrek gordeko ahal zaituzte Estatua zuzentzeko zuk beste inork zuzentzerik ez duen moduan; lanbideari uzten diozunean, gorde ahal izan gaitzateela haiek gerra zibil batetik.

Lanbide hori hartzeari uko egiteko ditudan azkeneko arrazoiak nire-nireak dira. Urtetik urtera, gero eta gogo handiagoa izaten ari naiz filosofia ikasteko. Zuri eta Estatuari hiriko pretore gisa zerbitzatu eta ondoren, aske utz nazazula eskatuko dizut, ikasbide horretara guztiz jarri ahal izateko. Eginkizun horretan, espero dut nire ondotik momentu bat uztea duina izanen dena gure espiritu erromatarrarentzat eta zure iritzi egokiarentzat».

Thornton Wilder, *Martxoko idusak*.
El País. Novela Histórica. Bartzelona, 2005.

**1. Ariketak**

1. Has dezagun elkarrizketa bat ikasgelan irasleak nahiz ikasleek iradokitako gai hauek edo beste batzuk direla eta:
 - Mapamundi batean koka dezagun eta azter dezagun Erromako Inperioak hartu zuen lurraldea, eta ezagut ditzagun gaur egun zein herrialdek osatuko luketen.
 - Une jakin batean, Julio Zesarrek dio, Brutori idatzitako gutunean, diktadore bat dela. Zergatik esaten dio Zesarrek bere buruari diktadore? Zer esan nahi du hitz horrek? Nork entzun du norbaiti buruz esaten diktadore bat dela? Zergatik esaten zitzaion horrela? Demokratikoki izendatutako agintari bati, diktadore esan ote dakioke? Zein dira diktadore baten eta agintari demokrata baten arteko diferentziak?
 - Zein lerrokadatan onartzen du Zesarrek bere bizitza arriskuan dagoela, eta halere ez duela ezer ere eginen hil dezaten eragozteko?
 - Zein da Julio Zesarrek Brutori idatzitako gutunaren helburua?
 - Zein da Brutoren erantzuna?
 - Zesarren hilketa eta gero, gerra zibila saihesteko modurik izan al zen? Herrialde demokratiko batean, boterea (gubernuburua) aldatzen denean, normala al da gerra zibil bat izatea? Espainian zenbat gubernuburu ezagutu dituzue? Nola hautatu dituzte? Zergatik utzi zioten boterean egoteari? Eta Nafarroako Foru Komunitatean?

1.1. Kalias edo koldarkeria

Sokrates orain dela 2.500 urte bizitako filosofo bat izan zen. Oso metodo bitxia zuen filosofia irakasteko. Ez zuen ez hitzaldirik, ez irakasbiderik ematen. Ez zuen libururik idazten. Jendearekin hitz egin besterik ez zuen egiten, eta saiatzen zen galderen bitartez eta gutxi zekienaren itxurak eginez, bere mintzakideak kontraesanetan eror zitezzen, halako moduan non amaieran gai izanen baitziren beren kabuz pentsatzeko eta arrazoitutako ondorioetara iristeko.

Sokratesen metodoan —maieutika deitutakoan—, hitza, pentsamendua da guztia.

Parlamentua hitza frantsesezko «parlament» hitzetik heldu da. Parlamentuetan hitzak, argudioak dena izan behar du, zeren eta horixe baita parlamentariak daukaten «arma bakarra». Gainerakoak hitzaren eta arrazoiaren bitartez konbentzitzea, denon ongia bilatzeko.

Kalias edo koldarkeria

«—Nondik heldu zara, Sokrates? Zure ohiko etxetik bueltan zatozela imajinatzen dut, betiere. Esan nahi dut Alzibiadesen bila ibiltzetik zatozela, naski.

—Horixe, o Kalias.

—Halere, uste dut jadanik biloa ageri duela kokotsean eta ez dagoela gaztediaren ederrenean.

—Ahaztu zaizu, Kalias, Homerok esan zuena: mutil gaztearen sasoirik atsegina dela kokotsean bizarra ateratzen hasten zaionekoa.

—Ez zait ahaztu, Sokrates. Baina, ados egonen zara nirekin esaten badut Alzibiades gaztea zuregandik urruntzeko atearen atalasean dagoela jada. Ez nizun, baina, horri buruz hitz egin nahi.

—Bada, esadazu, ene lagun, zer dela eta etorri zaren gaur honaino. Zeusgatik, jakin-nahiak akabatzen nago: niregandik hain urrun egon ote zara azken garai hauetan.

—Izan ere, Sokrates, nire seme Hipolitok esan dit zuk sustengatzen duzula bere inklinazioetan, eta duen koldarkeriarengatik errieta egin beharrean, dirudienez, harengatik lausengatzen duzula. Eta jakin nahi dut benetan sinisten duzun koldarkeria bertute handi bat dela, edo, agian, horrekin nik ulertzen ez dudan helbururen bat bilatzen duzun, zeinak bere bizitzarako ondorio iraingarriak izan ditzakeen.

—Jainkoek ez dezatela onar, Kalias maitea.

—Baina koldarkeria defendatzen duzu.

—Bide batez, Kalias.

—Harritzen nauzu, Sokrates. Beti sinetsi izan dut ausardia laudatzen zenuela.

—Horrelaxe da, Kalias.

—Bada, orduan ezin dut ulertu nola aldi berean koldarkeria laudatzen duzun.

—Ez dut aldi berean laudatzen, Kalias. Entzun al diozu zure semeari esaten koldarkeria eta ausardia aldi berean laudatu diodanik?

—Ez, ez diot horrelakorik entzun, Sokrates.

—Hartara, oker ari zara kontraesana edo azpildura leporatzen badidazu; justizia osoz eginenezake hori, berriz, koldarkeria eta ausardia aldi berean laudatzen entzun izan

bazenit. Ez al duzu sentitzen beroa munduko onena dela hotzez dardarka zaudenean negu gorriko egunetan?

—Zalantzarik gabe, Sokrates.

—Eta ez al duzu erregutzen freskoa eta are hotza ere egin dezan udako kiskaltzeko moduko egunetan Apoloren printzek zu besarkatzen zaituztenean Agora zeharkatzean?

—Noski, irrikaz nahi dut hotz egin dezan.

—Eta horregatik gaiztoa zarela pentsatzen al duzu? Hau da: hotza dagoenean beroa deseatzegatik, eta bero handiegia dagoenean hotza deseatzegatik.

—Noski ezetz, Sokrates.

—Edo, gutxienez ere, zeure burua erotzat hartzen al duzu, juiziorik gabeko gizontzat?

—Ez, Zeusgatik.

—Gehiago pentsatuko duzu pertsona zentzudun eta argia zarela. Ez da hala, Kalias?

—Zerorrek esan duzu, o Kalias.

—Orduan, zure iritzi pertsona zentzudun batek hotza eta beroa lauda ditzake?

—Bai, noski.

—Orduan, lagun, zergatik orain dela gutxi kritika egiten zenidan behin ausardia laudatu nuelako eta beste behin koldarkeria? Ez al duzu uste hotzerako eta berorako erabili dudana argudio bera koldarkeriarako eta ausardiarako erabil daitekeenik?

—Hala izanen da, zuk badiozu, Sokrates. Arrazoiak izanen dituzu hori baieztatzeko.

—Jainkoengatik baditudala, Kalias. Baina, ikus dezagun: gizon batek txakur amorratu bat topatzen baldin bada, ez ote zenuke esanen ausarta dela baldin eta makil batekin hari aurre egin eta hiltzen saiatzen bada, jendeari hozka egin diezaion eta hartara kalte oso handia ekar dezan ekiditeko?

—Noski, Sokrates.

Pertsona ausarta dela esanen nuke.

—Eta ez al zaizu iruditzen txakur amorratuari aurre egitean, makil batekin armatuta bada ere, piztiak hozka egiteko eta amorratioak sortzen dituen samin izugarriekin hiltzeko arriskua duela?

—Zalantzarik gabe, arrisku izugarri hori dauka.

—Alabaina: zuk ez duzu nahi zure seme batek amorratioaz hiltzeko arriskua izatea, ez da hala, Kalias?

—Argi dago ezetz, Sokrates.

—Eta hala bada, zure seme bati zer gomendatuko zenioke txakur amorratu batekin topo eginen balu? Makil batekin aurre egiteko edota ahal bezain laster ihes egiteko?

—Sokrates: ahal bezain laster ihes egiteko.

—Baina, Kalias: elkarrekin adostu dugu ausardia txakurrari makilarekin aurre egitea dela, ez da hala?

—Hala da, Sokrates.

—Horrenbestez, hainbesteko arriskua duen kasu batean, nahiago zenuke zure seme ausarta ez izatea, ez da hala, Kalias?

—Aitortu behar dut, Sokrates, egia diozula: kasu horretan, nahiago nuke nire semeak ausart ez jokatzea.

—Horrenbestez, ausardia ez da beti gomendagarria?

—Ez beti.

—Baina nirekin bat etorriko zara, Kalias, esatean aita batek beti ongia gomendatzen diola semeari.

—Bat nator zurekin.

—Baina arestian esan duzu txakur amorratuaren kasuan ihes egitea gomendatuko zeniokeela, ez al duzu, bada, hori esan?

—Hori esan dut, bai.

—Orduan, ondorioztatu behar dugu batzuetan ausardia ez dela ontasun bat.

—Zuzen zaudela uste dut.

—Baina, Kalias, zer da ausardiaren kontrakoa? Ez al da, ausaz, koldarkeria?

—Bai, Sokrates, koldarkeria ausardiaren kontrakoa da.

—Orduan, ausardia ontasun bat ez bada, kasu batzuetan behinik behin, kontrakoa izanen da ontasuna, koldarkeria alegia. Oker al nago, Kalias?

—Zuzen zaude, Sokrates.

—Beraz, ondorioa da koldarkeria batzuetan ontasun bat dela, halako punturaino non aita batek hura gomendatuko baitio seme bati.

—Horrelaxe dela, uste dut.

—Eta hori sinesten baduzu, eta zu, Hipolitoen aita zaren aldetik, koldarkeria gomendatu ahal badiozu, zergatik egiten didazu errieta niri hori egiteagatik, bere aita ere ez bainaiz? Ez al zaizu iruditzen zeu zarela, nire Kalias maitea, kontraesanetan erori zarena?

—Zeusgatik, Sokrates: lotsatzen naiz hasieran esan dizudanagatik. Asto bat naiz, eta gaiztoa gainera, une batez ere zure asmo zintzoez susmo txarrik izan dudalako».

Ernesto Sábato. *El País* egunkaria (1995-03-04).

**1.1. Ariketak**

Has dezagun elkarrizketa bat ikasgelan irasleak nahiz ikasleek iradokitako gai hauek edo beste batzuk direla eta:

1. Nola deskriba dezakegu Sokratesek besteei irakasteko erabiltzen duen metodoa? Nola iristen zara zerbait jakitera, gauzak buruz ikasiz ala arrazoimena erabiliz?
2. Gogoratu eta iruzkindu ezazu izan duzun azken eztabaida, zeinean norbait zeure ideiez konbentzitu baituzu: ez da pertsonarik aipatu behar; soilik ideia edo ideiak eta argudioak.
3. Olerkariak esan zuen «hitza etorkizunez kargaturiko arma bat dela». Zer esan nahi izan zuen?
4. Eztabaidaren bat ikusi al duzu telebistan, irratan...? Hitza hartzeko txanda errespetatzen al zioten elkarri? Arerioaren argudioei erantzuten al zieten, edo esaldi «ederra» —ikus-entzuleek platoan txalotzeko modukoa— bilatzen ote zuten, argudioa bilatu beharrean? Zer da argudiatzea?
5. Eta parlamentu batean? Ikusi al duzu sekula eztabaidaren bat? Zein? Nork eztabaidatzen zuten? Hitza hartzeko txanda errespetatzen al zioten elkarri? Arerioaren argudioei erantzuten al zieten? Esaldi «ederrak» bilatzen ote ziren — eztabaida telebistaz ikusten dutenentzat pentsatua— argudio sosegatua eta sakona bilatu beharrean?
6. Zein baldintza bete behar dira eztabaida bat arrazoizkoa izan dadin? Zerk balio du eta zerk ez du balio?

2. NON DAGO
NAFARROAKO
PARLAMENTUA?



2. Non dago Nafarroako Parlamentua?

[Goian] Nafarroako Parlamentuaren argazkia, kanpotik aterea
 Gaur egun Nafarroako Parlamentua hartzen duen eraikina XIX. mendearen bukaeran egin zen, Iruñeko udal arkitekto Julián Arteagak diseinatuta. Arkitektura eklektiko deitutakoaren adibide aipagarrietako bat da: irizpide arrazionalak, forma simetrikoak eta itxura gotorra ditu.


Munduko legebiltzar guztiak, ia beti, ordezkatzen duten lurraldeko hiriburuan daude, edo gutxienez hiri nabarmenetako batean. Beste hainbeste gertatzen da gobernuetako lehendakartzekin: lan egiten duten lurraldeetako hiriburuetan egon ohi dira.

Espainiako Gorte Orokorrek (Kongresua eta Senatua) Madrilen daude. Estatu Batuetako Kongresua eta Senatua hiriburuan daude, Washingtonen. Ingalaterrako Legebiltzarra Londresen dago. Italiakoa Erroman. Frantziako Asanblea Nazionalea Parisen, eta abar. Aipamen berezia merezi du Europar Batasunaren Legebiltzarrak, zeina Estrasburgon baitago, nahiz eta lan egiteko beste toki batzuk ere badituen. Europar Batasuna osatzeko prozesuan dago, eta beste herrialde batzuek Batasunean sartzea eskatu dute eta horixe espero dute.

Nafarroako Parlamentua edo Gorteak Iruñean daude, Nafarroako Foru Komunitateko hiriburuan. Egoitza berekia eta iraunkorra du. Navas de Tolosa kalean dago, Sarasate pasealeku ezagunaren mutur batean. Sarasate pasealekuaren beste muturrean, berriz, Nafarroako Jauregia dago, Nafarroako lehendakartzaren egoitza.

Parlamentuak hartzen duen eraikina 1892tik 1897ra bitarte eraiki zen, adreilu gorri eta hare-harriz. Iruña hiriaren lehenengo zabalpen modernoaren, Lehen Zabalgunearen, atal bat zen. Jatorrian, Nafarroako Entzutegia —justizia emateko erakundea— hartzeko egin zen. Baina birmoldaketa sakona egin ondoren, 2002ko abenduan Nafarroako Parlamentuaren egoitza bilakatu zen.

Eraikinak 11.000 metro koadro baino gehiago ditu. Lau solairu eta garajea dauzka. Logikoa den bezala, solairu bakoitzak bere erabilera dauka:



- beheko solairuan, erregistroa jendeari arreta egiteko, liburutegia eta beste zerbitzu batzuk daude.
- Lehenbiziko solairuan, Parlamentuko lehendakaritza, Mahaiko kideen bulegoak, zerbitzu juridikoak, kontu-hartzailatza eta prentsa-zerbitzua daude.
- Bigarren solairuan batzorde aretoak, parlamentu-taldearen bulegoak eta argitalpen eta itzulpen zerbitzuak daude.
- Eraikinaren erdian patioa dago, erdisotoko solairutik sarbidea duena, eta bertan Osoko Bilkuren aretoa, beirazko sabai handi batek estalia.

Parlamentariak, nagusiki, hiru lekutan egiten dute lan Nafarroako Parlamentuan:

- Beren parlamentu-taldearen bulegoan, non taldearen lan guztiak koordinatzen baitira. Talde guztiek bulego bat dute Parlamentuaren egoitzan.
- Batzorde aretoetan: haietan, talde desberdinen ordezkariak legeak eztabaibatzen eta prestatzen dituzte eta Gobernuako kideen informazioa jasotzen dute.

- Osoko Bilkuren aretoan. Bertan, parlamentariak aurretik eztabaidatu dituzten legeak bozkatzeko dituzte eta beste ekimen batzuk eztabaidatzen dituzte.

Xehetasun txikiekin nahiz izen desberdinekin, munduko legebiltzar guztiek parlamentariak lan egiteko hiru toki horiek izaten dituzte.

Osoko Bilkuran, modu desberdinetara egin daitezke eztabaidagai diren auziak ebazteko bozketak. Horrenbestez, bozketa izendunak egon daitezke: haietan, parlamentari bakoitzak bere botoa boto-ontzi batean uzten du, lehendakariak izendatzen edo deitzen duenean. Sistema hori ospe bereziko ekitaldietan erabiltzen da. Sistema ohikoena izaten da parlamentari bakoitzak, botoi bat sakatuz, baiezkoa, ezezkoa edo abstentzioa aukeratzea bere eserlekuetik bertatik. Gero, arin-arin, pantaila elektronikoko batean bozketaren emaitza agertzen da.

2. Ariketak

1. Seinala ezazu Iruñeko plano batean Nafarroako Parlamentua non dagoen. Plano horretan, ondokoak non dauden adierazi: Nafarroako Parlamentua, Nafarroako Gobernuaren lehendakaritzaren egoitza, Sarasate pasealekua, Gazteluko plaza, Baluarte eraikina, Zitudela eta zure ustez garrantzitsuak diren beste toki batzuk (kaleak, monumentuak eta abar).

2. Adierazi plano batean Parlamentura iristeko Iruñean barna egin duzun ibilbidea. Parlamentuko bisita egiten ez baduzu, adieraz ezazu zure herritik Parlamentuaren egoitzara iristeko egin beharreko ibilbidea.


3. Interneteko bilatzaile batean, sartu <http://sitna.cfnavarra.es/> helbidea. Orrialdean sartu eta «Bilaketak» atalean, Iruña idatzi. Hiriaren aire-argazki bat ikusiko duzu. Hurbildu irudia Gotorlekura, zezen plazara, Gazteluko plazara... eta Parlamentura. Parlamentua airetik nola ikusten den adierazi marrazki bat eginez.

2.1. Nafarroako Parlamentuaren edo gorteen egoitzak

Nafarroako Parlamentuaren egoitza Iruñean dago. 1979an lehenengo hauteskunde demokratikoak egin zirenetik —lehenengo Parlamentu demokratikoa osatzeko balio izan zuten— ia inork ez du zalantzan jarri Nafarroako Parlamentuak Iruñean egon behar duela. Alabaina, ez da beti horrela izan.

María Puy Huicik idatzitako Las Cortes de Navarra en la Edad Moderna liburuan (440-442 orrialdeak), jasota dago 1513tik 1821era antzinako Nafarroako Gorreak non bildu izan ziren.

- Iruñean, 50 aldiz.
- Tafallan, 3 aldiz.
- Zangozan, 3 aldiz.
- Lizarran, 5 aldiz.
- Tuteran, 8 aldiz.
- Erriberrin, 3 aldiz.
- Corellan, behin.



Nafarroako merindadeen mapa

Antzina, Nafarroako lurraldearen artikulazioa merindadeen arabeko banaketan oinarrituta zegoen. Merindade bakoitzean, hiri bat nagusitzen zen maila ekonomikoan, judizialean eta politikoan, bai eta merkataritza-mailan ere. Merino batek zuzentzen zituen merindadeko jarduera politikoak.

Gainera, hiru deialditan gertatu zen Gorreak bi hiri desberdinetan bildu zirela. 1517an, Lizarran eta Iruñean. 1645ean, Erriberrin eta Iruñean. 1662an, Iruñean eta Lizarran.

Aipatu liburuan, honakoa gehitzen da: «Gorreak edozein hiri edo hiribildutan bil dai-tezke, non eta erregeak nahiz printzeak zin egiteko ez diren. Izan ere, horrelakoetan Iruñean bildu behar dira, eta ekitaldia eliza nagusian egin behar da. Gorreak erresuma-ko hiriburuko tenplu nagusiaren beste areto batean bildu ohi ziren, biltzeko Iruña aukeratzen zutenean. Gorreen bilkura arratsaldeko hiruretan hasi ohi zen, nahiz eta hori ere batzuetan aldatzen zen...»

Azaldutako horretatik ondoriozta daiteke Nafarroako Gortek ez zutela egoitza finkorik; izan ere, Nafarroako erregeordeak, erregearen izenean, haiek biltzeko deia egiten zuenean, bilkura non eginen zen adierazten zuen. Hala eta guztiz ere, XVI. mendetik XIX. mendera, Iruña izan zen Gortek osatzen zituzten hiru estamentuetako kideak gehiagotan bildu ziren egoitza. Hain zuzen ere, honakoak ziren estamentu horiek: elizarena, nobleena eta «hiribildu onena». Horrek esan nahi du Iruñeak nagusitasuneko tokia zuela Nafarroako gainerako hirien aldean; nagusitasun logikoa, honako arrazoiengatik: biztanle kopuru handiena zuen, apezpikuaren egoitza zen, Nafarroako komunikabideen ardatza zen eta garrantzi militar handia zuen (defentsarako harresiak eta gotorlekua).

Gortek bildu ziren gainerako hiriak, Corella izan ezik, Nafarroakok Errresumako merindadeen hiriburuak ziren: Zangoza, Lizarra, Erriberri-Tafalla eta Tuter. Merinda-deetako hiriburuak jarduera ekonomikoaren, merkataritzaren eta artisautzaren ardatzak ziren beren inguruko lurralderako, merindaderako alegia. Halaber, komunikabide nagusietako bidegurutzeak ziren. Segur aski, horregatik hautatu zituzten, halaber, antzinako Nafarroako Gorteen egoitza gisa.

1979tik aurrera, lehenengo Gorte demokratikoak osatu zirenean —estamentuen araberako Gorteen azken deialdia 1829koa zen— ez zegoen haiek ezarri ahal izateko egoitza historikorik. Parlamentuaren lehenengo behin-behineko egoitza Iruñean egon zen —Arrieta kalean—, gaur egun Nafarroako Arartekoaren egoitza dagoen tokian. Osoko Bilkuren aretoa, berriz, Karlos III.a etorbidean zegoen. Azkenik, 2002an, Nafarroako Parlamentua gaur dagoen tokian ezarri zen, Navas de Tolosa kalean.



Osoko Bilkura bat Nafarroako Parlamentuaren aurreko egoitzan.

2.1. Ariketak

1. Egin ezazu merindadeen mapa bat, eta adierazi bertan Nafarroako Gorteen antzinako egoitzak non egon ziren. Jar iezaiozu izenburu egokia.

2. Arestian aipaturiko liburuan, honakoa dio María Puy Huicik: «Gorteak edozein hiri edo hiribildutan bil daitezke, erregeak nahiz printzeak zin egiteko ez diren bitartean.» Taldeka jarrita, azaldu, hiru arrazoi erabiliz, zergatik komeni den estatu edo erkidego batek parlamentu-egoitza bat edukitzea. Eman beste hiru arrazoi parlamentua hiri desberdinetan biltzeko aukeraren alde.

3. Honako hitz hauen esanahia bilatu:

- Egoitza.
- Estamentuen araberako Gorteak.
- Gorte demokratikoak.
- Erregeordea.
- Merindadea.

3. NORK OSATZEN
DU NAFARROAKO
PARLAMENTUA?



3. Nork osatzen du Nafarroako Parlamentua?

Une hauetan, Nafarroako Parlamentua 50 parlamentarik osatzen dute, zeinak lau urterako hautatzen baitira sufragio unibertsalez. Lau urtez behin, gehienez ere, foru hauteskundeetarako deia egiten da. Hauteskunde horietan 18 urtez gorako nafar guztiek parte har dezakete. Hauteskunde horietan Nafarroako parlamentariak hautatzen dira.

Foru hauteskundeetara edozein gizabanako aurkez badaiteke ere, aurkezten diren ia guztiak alderdi politikoen bitartez nahiz hauteskunde-talde bidez (alderdi politiko batek baino gehiagok osatuak) aurkezten dira.


Alderdi politiko bat da pertsona multzo bat, kausa komunak defendatzen dituenak, antzeko iritzi eta ikuspuntuak dauzkana eta lurralde batean boterea lortzeko antolatzen dena. Futbol partidu batean bezala, bi taldeek aurkaria garaitzeko jokatzeko dute. Hauteskundeak datozenean, alderdi politikoez hauteskunde-kanpaina batean hartzen dute parte, eta elkarrekin lehiatzen dira gainerako alderdiek baino boto gehiago eskuratzeko, eserleku gehiago lortzeko eta hauteskundeetan garaile ateratzeko. Izan ere, horrela, boterea eskuratu ahalko dute.

Hauteskunde-kanpaina, hautatuak izan nahi dutenak, beren alderdietako beste pertsona batzuen laguntzarekin, Nafarroako herri eta hiri gehienetan barrena ibiltzen dira, eta boterera iritsiz gero zer egingen luketen azaltzen diote jendeari. Gobernu-programa bat ere idazten dute, eta bertan idatzizko konpromisoa hartzen dute, irabaziz gero, ekintza batzuk egiteko. Egunkariak, irratiek, telebistek, Internetek... hautagai guztien hitzaldiak jaso ohi dituzte, bai eta alderdi politikoen iragarkiak ere. Halaber, hau-

[Goian] Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkura
Parlamentarien eserlekuak biribil bat osatuz antolatuta daude. Horrela, aisetasunez ikus eta entzun diezaiokete elkarri. Lehendakari gisa diharduenak bilkuren zuzendaritza-lana egin eta hitza eman edo kentzen du. Bere ondoan bi lehendakariorde eta bi idazkari esertzen dira. Parlamentari bat Osoko Bilkurari zuzentzen zaionean, Parlamentuko lehendakariaren mahaiaren aurrean kokaturiko mintzatoki batera igotzen da.

Nafarroako Foru Komunitateko hauteskunde-emaitzak

Hautagaitza	1. legegintz. 2. legegintz. 3. legegintz. 4. legegintz. 5. legegintz. 6. legegintz. 7. legegintz. 8. legegintz. 9. legegintz.									
	1979	1983	1987	1991	1995	1999	2003	2007	2011	2015
UCD Unión de Centro Democrático	20									
CDS Centro Democrático y Social			4							
PSN-PSOE Partido Socialista Obrero Español	15	20	15	19	11	11	11	12	9	7
UPN Unión del Pueblo Navarro	13	13	14	20	17	22	23	22	19	15
AP / PP Alianza Popular / Coalición Popular Partido Popular		8	2						4	2
PDF-PDP y PL (UDF) Unión Demócrata Foral			3							
HB / EH Herri Batasuna / Euskal Herritarrok	9	6	7	6	5	8				
CDN Convergencia de Demócratas de Navarra					10	3	4	2	0	
EKA Partido Carlista	1									
EA Eusko Alkartasuna			4	3	2					
UNAI Unión Navarra de Izquierdas	1									
EE Euskadiko Ezkerra			1							
EAJ-PNV Eusko Alderdi Jeltzalea- Partido Nacionalista Vasco		3								
Nacionalistas Vascos	3									
EA-PNV						3	4			
Nafarroa Bai								12	8	
Aralar							4			
IU / IUN-NEB Izquierda Unida / Ezker Batua				2	5	3	4	2		
Izquierda-Ezkerra									3	2
Bildu-Nafarroa									7	
EH Bildu										8
Geroa Bai										9
Podemos										7
Bestelakoak	8									
Guztira	70	50	50	50	50	50	50	50	50	50





Hauteskunde-kanpaina bateko mahai-inguru bat

Hauteskunde-kanpainan, hautagaien arteko eztabaidak eta mahai-inguruak antolatzen dira. Horrela, herritarrek aukera izaten dute haien buruzko iritzia eratu eta horren arabera bozkatzeko.

tagairen baten alde botoa eskatzen duten pertsonen iritzi arrazoitua ere jaso ohi dute. Eta kalean, iragarkiak, pegatinak, liburuxkak, bozgorailuak dituzten autoak, ikusten dira; eta boligrafoak eta kamisetak banatzen dira publizitatearekin. Eta guztia herritarren botoa eskatzeko. Hauteskunde-kanpainak hiru aste irauten du, eta hauteskundeak izan baino egun bat lehenago bukatzen da.

Hauteskunde-talde batek (bi alderdi edo gehiago) bere burua hauteskundeetara aurkezten duenean, taldea osatzen duten alderdiek akordio bat sinatzen dute, akordio horretan jasotakoa batera defendatzeko. Hartara, gauza guzti-guztietan ados ez badaude ere, jarduteko oinarri komun bat edukiko dute boterera iristen badira.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako herria ordezkatzeko du, zeren eta 18 urtez gorako nafar guztiak hautatua baita. Parlamentariak babes berezia daukate beren lana egiteko eta beren ideiak defendatzeko, arazorik gabe, bai gainerako parlamentarien aurrean, bai Nafarroako gizartearen aurrean ere. Izan ere, bortxaezintasun-babesa daukate Parlamentuko ekitaldietan adierazitako iritziei eta beren karguan jardutean emandako botoei dagokienez. Era berean, ezin dira atxilotuak izan beren hautaketaren indarraldian zehar, salbu eta ageri-ageriko delituan harrapatuak izan direnean. Parlamentariak beraiei botoa eman dieten hautesleak ordezkatzeko dituzte. Horregatik dute babes berezia, jardunean beren jokabide zuzenaz beste inongo presiorik izan ez dezaten.



3. Ariketak

1. Talde txikian:

- Jo ezazu Nafarroako Parlamentuaren webgunera (www.parlamentodenavarra.es) (bost hizkuntza aukera ditzakezu), «Osaera eta organoak» atalean klikatu eta kopia ezazu gaur egun Nafarroako Parlamentua osatzen duten parlamentarien zerrenda.
- Orri berean www.parlamentodenavarra.es, hauteskunderen emaitzen atalean, lortu azken hauteskunderen emaitzak, eta kopia ezazu dokumentu batean emaitzei buruzko irudia.
- Idatz itzazu azken foru hauteskundeetara aurkeztu diren alderdi politikoen siglak, eta adierazi zer esan nahi duten.
- Parlamentuko orri berean www.parlamentodenavarra.es/ kontsultatu Foru Hobetzearen 15.2 artikulua zer dioen. Bertan ezartzen da Nafarroan zenbat foru parlamentari egonen diren.


3.1. Nork osatzen zituzten Nafarroako Gorteak Aro Modernoan?

Nafarroako Gorteak, XVI. mendetik XIX. mendera, Nafarroako erresuma «eratzten» zuten hiru «estamentuek» osatuta zeuden: elizarena, nobleena eta hiribilduena. Gorteak soilik bil zitezkeen erregeak deialdia egiten bazuen.

Elizaren estamentutik, erresumako hierarkia katolikoa joaten zen Gorteetara: Nafarroako apezpikua zeina estamentuaren burua baita bikario orokorra, Tuterako deana, Orreagako priorea, San Juan Ordenako priorea eta Irantzu, La Oliva, Leire, Iratxe, Urdazubi eta Martzillako monasterioetako abadeak. Bakoitzak boto bat zeukan. Gorteetan nafarrak ez zirenek parte hartzerik ez zutenez, elizaren kargu horietako bat zuen pertsona bat nafarra ez bazen, Gorteetan parte hartu baino lehen, nafarra izateari buruz zin egin behar zuen eta, gainera, Nafarroako Erresumako foruak, pribilegioak, legeak eta ordenantzak, askatasunak eta ohiturak.

Hiribildu onen mapa

Mapan antzinako Nafarroako Gorteetan eserlekua zuten herriak aipatzen dira. Gainerako herriek ez zuten eserlekua izateko eskubiderik, eta ezin ziren Gorteetara joan.



Nobleen estamentutik estamentu militarra ere esaten zitzaion 150 pertsonara arte joan zitezkeen Gorteetara, baina 50 inguru joan ohi ziren. Erregeak noble askori «Gorteetan eserlekua» izateko eskubidea aitortu zien prestazio ekonomikoaren truke. Nafarroako noble tituludun guztiei dei egiten zitzaion (sei inguru) bai eta «jauregietako» edo «jauregi-etxeetako» jabeei, zeinek pribilegio hori baitzuten. Beso horren burua kondestablea Leringo kondea edo mariskala Faltzesko markesa iza-

ten zen. Hala eta guztiz ere, ezarrita zeuden lekuetan interes ekonomiko eta sozial handiak zituzten familia batzuen ekarpena (Ezpeleta, Elío, Ayanz de Mencos...) nabarmendu beharra dago. Kide bakoitzak boto bat zeukan.

Hiri edo hiribildu onen estamentutik, 38 herri zeuden ordezkatuta Gorteetan: Iruña, Lizarra, Tuter, Corella, Zangoza, Erriberri, Irunberri, Gares, Los Arcos, Viana, Agoitz, Elo, Tafalla, Villafranca, Uharte-Arakil, Mendigorri, Torralba, Cáteda, Aguilar, Etxarri-Aranatz, Lakuntza, Espronceda, Valtierra, Larrasoana, Lesaka, Doneztebe, Urrotz, Oibar, Atarrabia, Zuñiga, Cascante, Cintruénigo, Miranda, Arguedas, Goizueta, Etxalar, Artaxoa eta Milagro. Gutxi izan ziren XV. mendetik Gorteetan eserlekua lortu ahal izan zuten herriak. Hiriek edo hiribilduek prokuradore bat edo bi prokuradore ordaindu ahal zituzten, salbu eta Iruñeak, zeinak 5 edo 6 izendatzen baitzituen. Herri guztiek boto bat zuten, nahiz eta Iruñearen eragina nabarmena izan eta estamentu horren buruan egon. Oro har, hiribilduetako ordezkariak, aldi berean, beren herrietako alkateak eta erregidoreak izaten ziren. Horrenbestez, nobleak, kapareak eta abokatuak edo eskribauak bezalako lanbideetako pertsona ugari zeuden elite batekoak ziren.

Aro Modernoan, Nafarroako Gorteen ordezkari-tza-ahalmena, Aragoiko, Gaztelako, Kataluniako edo Europako beste erresuma batzuetako gorteena bezalaxe, ez zegoen irizpide demokratikoetan oinarritua. Adindunek ezin zuten beren botoarekin, beste pertsona batzuen botoarekin batera, hautatu nor osatuko zituen Gorteak edo nor gobernatuko zuen. Estamentuen araberrako gizarte bat kolektibo itxietan oinarritzen da. Kolektibo horiek leinuari lotuta daude (nobleziaren kasuan) edo ekintza batzuetan (kleroaren eta «hiribildu onen» ordezkarien kasuan). Izan ere, biztanle gehienek ez zuten hartan tokirik. Hiru estamentu horien botere ekonomiko eta soziala —landa-lur eta abere gehien jabeak ziren: garai hartako ekonomiaren oinarria— gehiago indartzen da Gorteetan ordezkariak izatearekin lortzen zutenarekin.

Erregearen agintea, zeina Gorteetarako deialdia egin dezakeen bakarra baita, sistema horren gainean mantentzen da eta hura existitzea bideratzen du, daukan boterea zalantzan jarri gabe, Jainkoarengan baitu jatorria. Nafarroako Gorteen ez zuten sekula zalantzan jarri sistemaren zilegitasuna, ez eta erregearena ere.



Kondestablearen jauregia

Gaur egun oraindik ere jauregi-etxe ugari geratzen dira Nafarroan. Haien etxeko jaunak eserlekua zuen Nafarroako Gorteetan. Beste batzuk, berriz, zaharberritu dituzte. Orain dela hamar urte, Kondestablearen jauregia, Kale Nagusiaren eta Jarauta Kalearen kantoian dagoena, aurri egoeran zegoela deklaratu zen. Iruñeko Udalak erosi zuen. Urtebete lehenago (1997) Kultur Intereseko Ondasun deklaratu zen. Gaur egun, zorionez, berreskuratuta dago.

4. PARLAMENTU DEMOKRATIKO BAT



4. Parlamentu demokratiko bat

Huteskundeak herrialde bateko bizitza politikoaren une garrantzitsuenetako bat dira. Huteskondeek aukera ematen diete herritarrei lurralde batean urte kopuru jakin batean aginduko dutenak hautatzeko. Horren garrantzia dela eta, herrialde guztietan arau batzuk ezartzen dira huteskunde-prozesuaren garbitasuna bermatzeko: boto gehien dauzkanak irabaz dezala, inolako tranparik gabe.

Nafarroako huteskundeetan eta gainerako autonomia erkidegoetan eta Espainian egiten direnetan, huteskunde arau ia berdinak daude. Idatzirik daude, eta nahitaez bete beharrekoak dira. Huteskunde batzorde bat arduratzen da haiek aplikatzeaz.

Herritarrek ematen duten botoak honako ezaugarriak bete beharko ditu:

Librea izatea. Bakoitzak nahi dionari ematen dio botoa. Horretarako, behar diren boto-paperak dauzka, aurkezten diren hautagai guztiekin.

Zuzena. Inork ezin du beste pertsona baten ordezkari botoa eman. Bakoitzak bere buruaren izenean ematen du botoa. Norbaitek uste badu huteskunde-egunean ezin izan duela botoa eman, posta bidez eman ahalko du botoa, zenbait egun lehenago.

Isilpekoa. Bermatuta dago inork ez jakitea pertsona bakoitzak noren alde eman duen botoa.

Aldizkakoa. Hautagaiak hautatzeko botoak gehienez ere lau urterako balioko du.

Unibertsala. 18 urtez gorako herritar guztiek ematen dute botoa.

[Goian] *Pertsona batzuk hutesleku batean botoa ematen*

Nafarroako parlamentariak nafar guztiek hautatutako pertsonak dira. Nafarroako biztanleek parlamentu demokratiko bat hautatzeko ematen dute botoa.

Bestalde, beharrezkoa da, halaber, hautagai guztiek beren programa ezagutzera eman ahal izatea. Horretarako, Estatuak gune batzuk eskaintzen dizkie telebista eta irrati ofizialetan (nazional eta autonomikoetan) bai eta dirua ere. Hautagaiek denbora gehiago dute komunikabideetan, beren alderdiek une horretan Parlamentuan daukaten ordezkartzaren arabera. Eta lortu dituzten botoen kopuruaren arabera ordaintzen zaie.

Hauteskunde-kanpainan, eskatzen duten hautagaitza guztiek har dezakete parte, salbu eta 1978ko Konstituzioan zehazturiko printzipioen eta giza eskubideen aurkakak diren ideiak defendatzen dituztenak. Baina epaile batek beste inork ezin du erabaki alderdiren batek hauteskundeetan ezin parte hartzea. Esate baterako, hautagai batek defendatzen baldin badu boterera iritsi eta une horretatik aurrera gizonek ezin izanen dutela botorik eman, edo nahi duena lortzeko indarkeria erabili behar dela defendatuko balu, epaile batek eragotzi ahalko lioke hauteskundeetan parte hartzea, legea urratzeagatik.

Azkenik, boto gehien lortu dituzten hautagaiak hautatuko dira, eta haiek osatuko dute Parlamentua.

Estatu edo erkidego demokratiko baten bereizgarria da baduela sistema bat bideratzen duena gizarte horretako agintariak hautatzea. Nafarroako edo Espainiak baldintza horiek betetzen dituzte. Baina gehiago ere bada. Herrialde edo erkidego demokratiko batean, giza eskubideak ere errespetatu behar dira, eta herritar guztiek bete-behar berak eduki behar dituzte, gizartean betetzen duten tokia alde batera utzita.

Herrialde demokratiko bateko biztanleek dituzten eskubideen artean, honakoak nabarmendu behar dira: adierazpen-askatasuna; prentsa-askatasuna; elkartzeko askatasuna; alde batetik bestera mugitzeko askatasuna; gutxiengoaren errespetua; arraza, sexu edo erlijioarengatik diskriminatua ez izateko eskubidea; alderdi politikoak sortzeko eskubidea; jabetza-eskubidea. Lege nagusi batek, Konstituzioak, eskubide horiek guztiak garatu eta boterea kontrolatzeko bidea ematen du.

Herritarren bete-beharren artean, azpimarratzekoak dira zergak ordaintzea (norberaren diru-sarreraren proportzioan), legeak eta arauak betetzea eta lagun hurkoa errespetatzea, besteak beste.



Hauteslekuetako kabinak
Hauteslekuetan botoa emateko jarritako kabinetan, hautagaitza guztietako boto-paperak daude. Herritarrek botoa nori eman aukeratu ahal dute. Hautagai bakar baten boto-paperak falta badira, bozketa eten eta haiek ekarri arte geroratu beharko litzateke.

4. Ariketak

1. Talde txikian:

Sartu honako orrian:

http://www.navarra.es/home_es/navarra/instituciones/elecciones/elecciones+parlamento/ «Nola bozkatu» atalean, kopiatu dokumentu batean ondoko galderak, eta haiek erantzun itzazu:

- Zer ordutatik zer ordutara irekitzen dituzte hauteslekuak?
- Zertarako balio dute hauteslekuetako kabinek?
- Zein agiri aurkeztu behar dute hautesleek botoa eman ahal izateko?
- Zein boto joko dira baliogabetzat?

Gero sartu «Maiz eginiko galderak» atalean eta erantzun:

- Nola jakiten da nora joan behar den botoa ematera?
- Nola ematen dira jakitera hauteskundearen emaitzak?

Gogoeta egin ezazue: zer da adierazpen askatasuna? Horretarako:

- Aipa itzazue adierazpen askatasunak babesten ez dituen hiru adierazpen kasu.

- Definitu adierazpen askatasuna.

- Azal ezazue zuen gogoeta gainerako taldeekin.

Idatz ezazue zuen etxeke 18 urtez gorakoek non bozkatu behar duten.

4.1. D'Hondt legea

Behin hauteskundeak egiten direnean, kontatu egin behar dira zenbat boto lortu dituzten parte-hartzaileek, hau da, hauteskudeetara aurkeztutako alderdi politikoek. Lan horrek ez du zailtasun handirik sortzen. Baina gero, ezagutu beharra dago zein den Parlamentuan bakoitzak izanen duen ordezkari kopurua zehazteko sistema.

Herrialde batzuetan **sistema proportzionala** aplikatzen da. Alderdi politikoek legebiltzarretan zenbat eserleku izanen dituzten ezartzeko, jaso dituzten botoen portzentajea da kontuan hartzen dena. Esate baterako, Nafarroan sistema hori aplikatuko balitz eta A alderdiak 100.000 boto lortuko balitu, B alderdiak 71.000 boto eta C alderdiak 29.000 boto, 50 parlamentarien hautaketa honela kalkulatu litzateke:

A+B+C= 200.000 boto 50 eserlektarako

A=100.000 boto
 200.000 boto 50 eserleku *baldin badira*
 100.000 boto x eserleku izanen dira

 (100.000 x 50) : 200.000 = 25

B=71.000 boto
 200.000 boto 50 eserleku *baldin badira*
 71.000 boto x eserleku izanen dira

 (71.000 x 50) : 200.000 = 18

C=29.000 boto
 200.000 boto 50 eserleku *baldin badira*
 29.000 boto x eserleku izanen dira

 (29.000 x 50) : 200.000 = 7

Beste herrialde batzuetan, gehiengoaren **sufragio zuzenaren sistema** erabiltzen da. Boto-emaileak soilik hautagai baten alde eman dezake botoa, eta hauteskundeak irabazten dituen da bere hauteskunde barruti edo eremuan boto gehien lortu dituen. Pentsa dezagun Nafarroak 50 hauteskunde barruti daudela, eta haietan biztanle kopurua antzekoa dela. Barruti horietako bakoitzean, hauteskundeetan, boto gehien eskuratu dituen hautagaia hautatuko litzateke.

Barruti bat = eserleku bat >> 50 barruti= 50 eserleku

1. barrutia	2. barrutia	3. barrutia
A= 2.200 boto >Hautatua	P= 1.801 boto >Hautatua	Eta abar
B= 1.500 boto >Ez	Q= 1.798 boto >Ez	
C= 455 boto >Ez	R= 220 boto >Ez	

Nafarroan Parlamentuko eserlekuak esleitzeko erabiltzen den sistemari **D'Hondt legea** esaten zaio. Sistema hori proportzionala da, baina boto gehien dituztenei egiten die mesede. Gainera, botoen % 3 baino gutxiago lortzen duen alderdiak ez du ordezkari-



Barack Obama, Estatu Batuetako lehendakaria
 Estatu Batuetako lehendakaria gehiengoaren sistemaren bitartez hautatzen da. 50 estatueta bakoitzean irabazten duen hautagaiak estatu horretako konpromisario guztiak lortuko ditu.

rik lortzen. Nafarroa ez dago barrutitan banaturik. Alderdi bakoitzaren eserlekuak Nafarroa osoan guztira lortutako botoen arabera kalkulatu dira, baina ondoko taulako arauari jarraituz, 50 eserlekuen kopurua osatu arte (lehenbiziko 20ak baizik ez ditugu kalkulatu):



Hauteskunde mahaia
Botoa ematea betebeharrak eta eskubideak, zeinak bidea ematen baitu Nafarroako herritarrek Parlamentua hautatzeko. Parlamentuak, berriz, Nafarroako Gobernuak lehendakaria hautatuko du.

	A alderdia Eserluak	B alderdia Eserluak	C alderdia Eserluak
Lortutako botoak	100.000 1	71.000 2	29000 6
zati 2	50.000 3	35.500 4	14.500 12
zati 3	33.333,33 5	23.666,6 8	9666,6 20
zati 4	25.000 7	17.750 10	7.250
zati 5	20.000 9	14.200 14	5.800
zati 6	16.666,6 11	11.833,3 16	4.833,3
zati 7	14.285,71 13	10.142,86 18	4.142,8
zati 8	12.500 15	8.875	3.625
zati 9	11.111,1 17	7.888,8	3222,2
zati 10	10.000 19	7.100	2900
zati 11	9.090,91 21	6.454,5	2.636,3
zati 12	8.333,33	5.916,67	2.416,6
zati 13	Eta abar	Eta abar	Eta abar
zati 14	Eta abar	Eta abar	Eta abar
zati 15	Eta abar	Eta abar	Eta abar

Sistema proportzionalek eta gehiengoaren sistemak badituzte aldekoak eta aurkariak. Lehenbizikoek esaten dute sistema proportzionalek ongi islatzen dutela gizartearen iritzia: alderdi bakoitzak lortutako boto-kopuruaren arabera eserleku-kopurua lortzen du. Gehiengoaren sistemaren aldekoek diote boto gehien hartzen dituzten alderdiei mesede egiteak gehiengoak ahalbidetzen dituela, eta, horrenbestez, gobernu egonkorak. Gobernuak ez daude, halakoetan, edozein ekimen blokea ditzaketen gutxiengoaren eskuetan.

Edonola ere, bi sistemak demokratikotzat jotzen dira.

4.1. Ariketak

1. Kopiatu dokumentu batean parlamentariak hautatzeko D'Hondt sistema aplikatu dugun koadroa eta asma ezazu (beste kolore batekin adierazi) nori legokiokeen 21, 22, 23 eta 24 parlamentaria hautatzea. Kalkulagailua erabil dezakezu.

2. Sartu Interneten. Bilatu «D'Hondt sistemari» buruzko informazioa eta kopiatu hemen definizioa, eserlekuen banaketari buruzko informazioarekin batera.

3. Idazlan labur bat egin, bikoteka, zuen ikasgelan ordezkaria hautatzeko erabili duzuen sistema azalduz. Halakorik ez badago, azaldu arrazoiak. Gogoeta egin ezazue: interesgarria izanen ote litzateke ikasgelan ordezkari bat izatea? Zergatik?

5. ESPAINIAKO PARLAMENTUAK

5. Espainiako Parlamentuak

Espainiako lege nagusia Konstituzioa da, 1978an erreferendum bidez onetsia. Lege horretan, besteak beste, honakoak jasotzen dira:

- Espainiarren eskubideak eta betebeharrak.
- Gorte Orokorrak (Kongresua eta Senatua) eta Espainiako Gobernua eratze-ko hauteskundeak egiteko arauak.
- Estatuaren autonomia erkidegoen araberako antolaketa.

Hain zuzen ere, 1978ko Konstituzioak Espainia osatzen duten erregioen eta nazionalitate historikoen autonomiarako eskubidea aitortzen du. Aitorpen hori dela eta, 17 autonomia erkidego eratu ziren, bakoitzak bere berariazko legearekin —autonomia estatutua deitutakoa—. Nafarroan lege horri Foru Hobetzeari buruzko Legea esaten zaio, eta 1982koa da.

Autonomia estatutuak autonomia erkidego bakoitzaren funtsezko arauak dira. Estatutuetan, erkidego bakoitzaren autogobernua hartzeko autonomia erkidegoaren izena, antolaketa eta erakundeak jasotzen dira. Oro har, autonomia erkidego guztietako organo instituzionalak berak dira, eta honako boteretan banatuak: botere legegile bat, botere exekutibo bat eta botere judicial bat:

Espainia autonomikoa

Espainian boterea deszentralizatuta dago. Horrek esan nahi du arlo batzuetan Espainiako Gobernuak agintzen duela, eta beste arlo batzuetan, berriz, autonomia erkidegoek. Halere, gobernuek kasuko parlamentuek onetsitako legeak bete behar dituzte, 1978ko Konstituzioak ezarritakoari lotuta daudelako.



- **Botere legegilea.** Legegintza-biltzarra edo parlamentua. Sufragio unibertsa-
lez hautatzen da autonomia erkidego bakoitzean. Honakoak dira haren
oinarrizko eginkizunak: legeak egitea eta erkidegoko gobernuaren jarduna
kontrolatzea.
- **Botere exekutiboa.** Gobernua, buruan lehendakari bat duena. Erkidego
bateko lehendakaria erkidego horretako parlamentariak hautatzen dute.
Gobernuak ahalmena dauka herritarrei legeak betearazteko, errepideak egi-
teko edo hobetzeko, ospitaleak eta institutuak egiteko...
- **Justizia auzitegi nagusia.** Erkidego bakoitzeko justiziaren organo gorena.
Botere judiziala da, herritarren edo erakundeen ekintzak epaitzen dituen
eta, horrenbestez, haiek kondenatzen edo absolbitzen dituen.

Autonomia estatutu guztiek ezaugarri komunak badituzte ere, haien artean desber-
dintasunak ere badaude, lurralde bakoitzaren berezitasun historiko edo sozialei tokia
egiteko. Nafarroan, Foru Hobetzea izenaz ezagutzen da autonomia estatutua. Izan ere,
lege horrek lehendik Nafarroan zeuden legeak —foruak— jaso eta gaurkotzen ditu.
Foruak ziren nafarrek zeuzkaten legeak Nafarroako antzinako erresuma Gaztelakoare-
kin batu aurretik eta ondoren. Foru Hobetzeak jasotzen dituen berezitasun batzuen
ondorioz, Nafarroak gainerako autonomia erkidegoak baino eskumen batzuk gehia-
go ditu. Hartara, bada, Nafarroako Gobernuak zergak kobratzen dizkie nafarrei —zerga
horiek Nafarroako Parlamentuak onesten ditu aurretik—. Gainerako autonomia erkide-
goetan, berriz, Espainiako Administrazioa da zergak kobratzen dituen, eta ez autono-
miakoa. Horren truke, legeek jasotzen dute nafarrek, oro har, gainerako espainiarrek
adina zerga ordainduko dituztela; gainera, Nafarroak Estatuari urtero diru-kopuru bat
ordaintzen dio, kupoa izena duena, guztien gastu komunetarako ekarpen gisa.

5. Ariketak

1. Aurkitu Interneten (http://eu.wikipedia.org/wiki/autonomia_erkidego, edo beste bat) autonomia erkidegoen mapa eta haien oinarrizko datuak (hiriburua, erkidegoa osatzen duten probintziak) eta kopia itzazu dokumentu batean.

2. Autonomia erkidegoak honako irizpideen arabera sailkatu:

- Uharteetako erkidegoak eta Penintsulako erkidegoak.
- Kostaldeko erkidegoak eta barrualdekoak.

3. 1978ko Konstituzioaren testua lortzeko sartu helbide honetan:

<http://www.justizia.net/Docuteca/Documentos/3873Espainiako%20Konstituzioa.pdf>.

Talde txiki batean, komentatu 12. artikulua:

- zer esan nahi duen.
- zer alde on dituen.
- zer alde txar.
- besterik.

Gero, bateratze-lan bat egin ezazue ikasgelan, eta aurreko atalekin eskema bat egin Konstituzioaren 12. artikulua azaltzeko.

4. Aurkitu autonomia erkidegoen mapa batean gutxienez ere zazpi erkidegotako parlamentuen egoitza. Adierazi, era berean, Espainiako Gorteak non dauden: Kongresua eta Senatua.

5.1. Demokraziak... baina hala holakoak

Demokrazia hitzak, etimologikoki, herriaren gobernua esan nahi du (grezieraz, *demos* herria da eta *kratos* gobernua). Hitza orain dela 2.500 urte inguru sortu zen Grezian. Bixia bada ere, urruneko garai haietan atenastarrek zuten demokrazian, herritar guztiak ez zuten gaitasunik beren ideiak defendatzeko, botoa emateko edo hiriko ordezkariak hautatzeko.

Kalkulatu da Atenasek ehunka mila biztanle zituela Kristo aurreko V. mendean. Hala eta guztiz ere, mila batzuk baino ez ziren herritartzat hartzen eta haiek baizik ez ziren eskubide politikoen jabeak. Gutxienez ere bi biztanle multzo handi zeuden bazterturik:

- Esklaboek ez zuten inongo eskubiderik: beren jabeenak ziren eta haiei zerbitzatu behar zieten.
- Emakumeak eztabaida publikoetatik eta karguetatik kanpo zeuden.

Horren guztiaren ondorioz, Atenasko biztanle gutxi batzuek baino ez zuten guztien ize-nean erabakitzen. Oro har, esklaboak zituzten gizonak ziren bizimodu hobea zutenak. Batzuetan hizlariak kontratatzen zituzten beren interesak foroan edo plazan hobeki defendatzeko, horixe baitzen gaiak eztabaidatzeko lekua.

Hegoafrikan, apartheid (segregazioa) izeneko sistema politiko soziala ezarri zen. Funtsean, haren oinarria zen pertsonak arrazaren arabera bereiztea, eta horren arabera eskubide gehiago edo gutxiago ematea. Zuriak, esate baterako, eskubidea zuten hauteskundeetan parte hartzeko eta herrialde horretako gobernua hautatzeko. Itxura batean, Hegoafrika herrialde demokratikoa zen. Hala eta guztiz ere, beltzek (populazioaren gehiengoak) ezin zuten botorik eman. Gainera, 1950ean aldarrikatutako lege batek ezarri zuen hiriko eremu batzuetan zuriak baino ezin zirela bizi. Zuriak ez zirenak behartu zituzten beste leku batzuetara joan zitezten. Halaber, bazeuden zuriertzat erreserbatutako hondartzak, autobusak, ospitaleak, eskolak... Apartheidak 1994ra arte iraun zuen. Urte hartan, azkenik, adindun guztiak, zein arrazatakoak ziren alde batera utzita, parte hartu ahal izan zuten hauteskundeetan.

Espainiako eta Europako herrialdeetako historiako une batzuetan, zerga handiak ordaintzen zituztenek —dirudunek— baino ezin zuten botorik eman eta herrialdeko gobernua hautatu. Une hauetan, oraindik ere munduko herrialde batzuetan emakumeek ezin dute botorik eman. Halaber, herrialde batzuetan, alderdi politiko guztiak debekatuta daude, bat izan ezik, eta, horrenbestez, ezin dira hauteskundeetara aurkeztu. Horrenbestez, alderdi bakar horretako kideei baino ezin zaie botoa eman. Azkenik, herrialde batzuetan gobernuan dagoena boterera indarra erabiliz iritsi da, estatu-kolpe batez. Kolpe horren aurka dagoena atxilotu egiten da. Eta gertatu izan da urte batzuen buruan hauteskundeetarako deia egiten denean, estatu-kolpea jo duenak botoen % 95 baino gehiago eskuratzea...

Demokrazia, gaur egun ulertzen dugun moduan, hau da, pertsona bakoitzeko boto bat, herrialde bateko biztanleek beren agintariak libreki eta aldizka hautatzeko, asmakari ahul eta berria da, eta ez da munduko herrialde guztietara iritsi.



Nelson Mandela espetxean
Nelson Mandela 46664
zenbakiko preso zen.

5.1. Ariketak

1. Irakurri arretaz testu hau. Ondoren datozen galderak dokumentu batean kopiatu eta emaezu erantzuna.

«Nire bizitza osoan Afrikako herriaren borroka honen alde jardun dut. Zurien dominazioaren aurka borrokatu dut, eta beltzen dominazioaren aurka borrokatu dut. Gizarte libre eta demokratiko baten ideala bilatu dut; halako ideal bat non pertsona guztiek elkarrekin biziko diren harmonian eta aukeren berdintasunean. Espero dut behar adina bizitzea ideal hori gauzaturik ikusi ahal izateko. Baina beharrezkoa bada, prest nago ideal horren alde hiltzeko».

Nelson Mandela, Hegoafrikako Gorte Nagusiaren aurrean eginiko alegatuan, espetxe zigorra jaso baino lehentxeago: hainbat urte pasa zituen kartzelan.

- Zein herrialderi buruz ari gara hitz egiten?
- Sartu http://enciclopedia.us.es/index.php/nelson_mandela web orrian.
- Labur azaldu herrialde horretan ezarri zen sistema politikoa, apartheid deitutakoa, zertan zen.
- Kopiatu Nelson Mandelaren argazki bat.
- Irakurri «Presidente de Sudáfrica» atala, eta aipa ezazu Nelson Mandelaren ekintzaren bat, espetxean urte haietan guztietan egon ondoren, 1994an berradiskidetze nazionaleko politika bat ekarrarazi zuena.

-
2. Ikertu eta erantzun:

- Bakarrik alderdi politiko bat baimenduta dagoen munduko herrialde bat edo herrialde batzuk.
- Munduko herrialde bat edo herrialde batzuk, non estatu-kolpe bat izan den. Estatu-kolpea jo zuen diktadorearen izena.
- Emakumeek botoa ematerik ez duten herrialde bat edo herrialde batzuk.

5.2. Estatu bateko botereak

Estatu demokratiko batean, boterea ez dago soilik pertsona baten edo erakunde baten eskuetan. Zenbait pertsonaren edo erakunderen artean banatzen da. Hartara, erabakitzen duena herritarrarengandik hurbil dago eta erakundeek elkar kontrolatzen dute guztiak legeen arabera joka dezaten. Izan ere, boterea bat da, herriaren subiranotasunetik sortua, hauteskunde demokratikoen bitartez, baina erakunde eta pertsona batzuek erabiltzen dute.

Nafarroan, honakoak dira boterea daukaten hiru oinarritzko erakundeak:

- Gobernua edo botere exekutiboa.
- Parlamentua edo botere legegilea.
- Justizia auzitegiak edo botere judiziala.

Gainera, hirietan eta herrietan udalak daude, zinegotziek osatuak. Zinegotziek beraien artean alkatea hautatzen dute.

Charles de Secondant, Montesquieuko baroia, izan zen *Legeen espirituaz* (1748) liburuan proposatu zuena beharrezkoa zela estatu bateko botereak zatitzea eta haiek organismo desberdinen eskuetan egotea, botereek beren burua kontrolatzeko eta tirania saihesteko. Gaur egun, estatu demokratiko guztiak boterea banatzen dute halako ideia bat aplikatuz; alegia, beharrezkoa dela botere guztia ez egotea bakarrik organismo edo pertsona baten eskuetan. Botere guztia esku gutxitan egotea ez da gomendagarria.


Botere exekutiboa gobernuek baliatzen dutena da. Gobernua gobernuburu batek —modu askotara deitzen zaio: lehen ministroa, lehendakaria eta abar) eta beste pertsona batzuek— ministroak, kontseilariak, idazkariak eta abar) osatzen dute. Pertsona horiek arlo jakin batzuetaz arduratzen dira (esate baterako, osasuna, hezkuntza, ogasuna...). Exekutiboa arduratzen da gobernu baten eguneroko jardunaz eta herritarrei laguntza hobea emateko proposamenak aplikatzeaz (hezkuntza-zerbitzuan, osasunean, garraioetan eta abar).

Botere legegilea herrialde bateko legeak egiteaz edo aldatzeaz arduratzen da, betiere herritarren iritzia, konstituzioari eta giza eskubideei jarraituz. Orokorrean, hautaturiko pertsona ugarik osatzen dute. Parlamentu, biltzar, kongresu edo bestelako izen bat ematen zaion toki edo ganbera batean biltzen dira. Batzuetan, bi ganbera daude, legeak bi toki desberdinetan eztabaidatu ahal izateko. Gainera, parlamentuak gobernuaren eguneroko jarduna kontrolatzen du, eta egokitzen dituen azalpenak eskatzen dizkio. Eta kasua bada, lehendakaria kargutik kendu eta beste bat hauta dezake.

Botere judiziala gatazka sozialak (lapurretak, hilketak, iruzurrak...) ebazteaz arduratzen da. Horretarako, Parlamentuak onetsitako legeak aplikatzen ditu. Horretarako, epaitegiak edo auzitegiak daude. Haietara, izan ere, elkarren aurka dauden aldeak aurkezten dira, eta epaileak, epaiketan zehar bie entzun ondoren, arrazoa nork duen erabakitzen du. Gainera, zehapenak ere ezar ditzake: espetxeratzeak, gizarte lanak eta abar. Auzitegiak dira legeak interpreta ditzaketen bakarrak, halako moduan non botere legegiletik eta exekutibotik independenteak izan behar baitute, sistemak funtziona dezan. Nolabait esateagatik, sistemako arbitroak dira. Epaile baten epai baten bidez baizik ezin da pertsona bat erruduntzat jo.

Montesquieuko Baroia

Frantziako Montesquieuko baroia *Legeen espirituaz legea* debekatuta egon zen, baina behin eta berriz berrargitaratu zen. Haren tesi nagusia da pertsonen askatasuna eta berdintasuna soilik berma daitezkeela estatu bateko botereak —exekutiboa, legegilea eta judiziala— bakoitza bere aldetik burutzen direnean. Baina Montesquieuk liburua idatzi zuenean (1748) Frantziako estatuaren hiru botereak pertsona beraren eskuetan zeuden: erregea.



5.2. Ariketak

1. Iker ezazu zergatik egon zen Montesquieuren liburua debekatuta Europako zenbait herrialdetan.

2. Honakoen esanahia bilatu:

- Herriaren subiranotasuna
- Botere exekutiboa
- Botere legegilea
- Botere judiziala

6. ZERTARAKO BALIO
DU NAFARROAKO
PARLAMENTUAK?

6. Zertarako balio du Nafarroako Parlamentuak?

Nafarrek lau urtez behin Nafarroako Parlamentua osatzen duten 50 parlamentariak hautatzen dituzte. Parlamentariak oinarritzako lau eginkizun betetzen dituzte: ordezkariak, legegintzak, ekonomiko eta finantzarioak eta Nafarroako Gobernuaren kontrolak.

1. Ordezkaritza eginkizuna:

50 parlamentarioak Nafarroako gizartearen ordezkariak dira, zeren eta 18 urtez gorako pertsona guztiek hautatzen baitituzte; bestalde, alderdi politiko desberdinetakoak dira eta ideia desberdinak dituzte Nafarroak aurrean daukan arazo politiko, sozial edo ekonomikoak konpontzeko. Horrela nabarmentzen da biltzarreko eztabaidetan, bozketetan, akordioetan eta abarretan. Nafarroako Parlamentua Nafarroako gizartearen erakusleho txiki bat da, eta hautesle guztien sentipenak eta beren ikuspuntuak islatzen ditu.

2. Legegintza eginkizuna.

Nafarroako Parlamentua da Nafarroan indarra duten legeetako batzuk eztabaidatu, bozkatu eta onesten diren lekua. Lege bat egiteko ekimena parlamentariena beraiena izan daiteke, edo herritarrena, edo udalena edo Nafarroako Gobernuarena. Behin ekimena planteatzen denean edo Nafarroako Parlamentura iristen denean, prozesu bat jartzen da martxan. Prozesu horretan aukera ematen zaie parlamentari guztiei ezagutzea, eztabaida dezaten eta testua hobetzeko zuzenketak aurkez ditzaten. Amaieran, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran, ekimena onesteko edo ez onesteko bozketa izaten da. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean eta herritar guztiei ezagutzeko aukera dutenean hartuko du indarra legeak. Hartara, onesten diren lege guztiak idatzita daude eta kontsultatu ahal dira.

Parlamentuko Osoko Bilkura bateko eztabaida

Foru Hobetzearen 11. artikulua Nafarroako Parlamentuaren eskumenak laburtzen ditu: «Nafarroako Parlamentuak Nafarroako herria ordezkatzeko du, legegintza ahalmenaz baliatzen da, Nafarroako aurrekontuak eta kontuak onesten ditu, Foru Diputazioaren (Nafarroako Gobernuaren) ekintza kontrolatzen du eta antolamendu juridikoak esleitzen dizkion gainerako eginkizunak betetzen ditu».



3. Eginkizun ekonomiko-finantzarioa.

Aurrekontuak dira Nafarroako Parlamentuak onesten diren legeetatik garrantzitsuenetako bat. Lege horretan, Nafarroako Gobernuaren kasuan kasuko urteko diru-sarrerak eta gastuak zehazten dira. Herritarrek ordaindu behar dutena eta Gobernuak gizartearen onurarako egiten dituen gastuak. Foru lege proiektu horri lehentasuna ematen zaio tramitazioan, duen esanahiarengatik, eta urtero onetsi behar da. Onesten ez bada, aurreko urteko aurrekontuak luzatzen dira, halako moduan non Gobernuak jada eskaintzen dituen zerbitzuak (ospitaleak, hezkuntza, suhiltzaileak, errepedeen mantentzea, zahar-etxeak eta abar) ez diren geratuko.

4. Jarduera politikoaren kontrola eta bultzada.

Nafarroako Gobernuko lehendakaria Nafarroako Parlamentuak hautatzen du. Bai lehendakaria bai kontseilariak (gai zehatzen ardua dutenak; esate baterako, merkataritza, garraioak, industria, osasun, hezkuntza...) parlamentariak egiten dizkieten eskariei erantzun behar diete, eta beren ekintzen eta proiektuen berri eman behar diete. Nafarroako Parlamentuak Gobernuaren jarduna kontrolatzeko beste bide batzuk badi-tu: zentsura mozioa (Nafarroako Gobernuko lehendakaria kargutik kendu eta beste bat izendatzeko prozesua) edo konfiantza eskaera (gobernua ordezteko bidea ematen duena).

Oinarrizko eginkizun horiez gainera, Nafarroako Parlamentuak lege proposamenak aurkez ditzake Gorte Nagusietan, senatari autonomikoa hauta dezake, konstituzio-kontrakotasuneko errekursoak aurkez ditzake eta abar. Horrela, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako herria ordezkatzeko du, gobernu-lana zuzen gara dadin zaintzen du eta nafarren bizitza publikoaren zenbait alderdi antolatzen eta zuzentzen ditu, onesten dituen legeen bitartez.

6. Ariketak

Aurreko testua laburbildu, ondoko eskema erabiliz:

Nafarroako Parlamentuaren eginkizunak

-

-

-

-

- Besterik:

6.1. Nafarroako Parlamentuak nola egiten dituen legeak

Lege bat herritar guztiak bete eta errespetatu beharreko arau bat da. Norbaitek lege edo arau bat ez badu betetzen —esate baterako, autobide batean baimendutako abiadura gainditzen badu edo supermerkatu batean lapurtzen badu— isun bat jar dakioko. Delitua handiagoa bada, jazarri egin daiteke harik eta poliziak epaile baten aurrera eramane eta epai egokia ematen duen arte.

Legeak herritar guztientzat hain garrantzitsuak direnez, oso garrantzitsuak dira, baita ere, bai haiek sortzen dituzten pertsonak, bai haiek sortzeko prozesua bera ere. Badakigu nork egiten eta onesten dituen legeak: hauteskunde demokratikoetan hautaturiko parlamentariak. Baina, nola egiten dituzte?

Orokorrean, Nafarroako Gobernuak da Parlamentuan lege-ekimen gehien aurkezten dituen; testu horiek lege-proiektu deitzen dira. Lege-ekimenak aurkez ditzaketen beste pertsona edo erakunde batzuk badaude, lau hain zuzen ere: parlamentariak, parlamentu-taldeak, Nafarroako udalak (merindade bateko udalen heren bat, biztanle eskubidedunen ehuneko berrogeita hamar ordezkatzeko badu) eta herritarrak (zazpi mila, gutxienez ere). Horiek aurkeztutako ekimenei lege proposamen esaten zaie.

Proiektua edo proposamena Parlamentura iristen denean, Parlamentuko Mahaiaik eta Eledunen Batzarrak aztertzen du, eta erabakitzen badute proiektuak edo proposamenak aurrera egitea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen da, parlamentari guztiak ezagut dezaten. Gutxienez ere hamabost eguneko epea uzten da testua irakurri eta aztertzeko. Parlamentariren batek zuzenketaren bat (testua aldatzeko proposamenen bat) aurkeztu nahi badu, Parlamentuko aldizkarian argitaratuko da. Osoko Bilkuran osoko zuzenketa bat aurkeztu eta onesten bada, legea errefusatu egingen da.



NAOren lehen orrialdea
 Nafarroako Parlamentuak onetsitako lege guztiak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen dira. NAOren paperezko argitalpenak 2009ko uztailean arte kaleratzen segitzeko asmoa dago; hortik aurrera, soilik on line bertsioa, aspalditik abian dagoena, egonen da. NAO guztiak kontsultatu ahal izateko webgunea honakoa da: http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/ Bestalde, EAO kontsultatzeko, zoaz beste helbide honetara: <http://www.boe.es/g/es/>



Lege proiektua edo proposamena gero Parlamentuko batzorde batean aztertu edo eztabaidatuko da. Esate baterako, osasunari buruzko lege bat baldin bada, Osasun Batzordean aztertuko da; garraioari buruzkoa bada, berriz, gai horretaz arduratzen den batzordean eztabaidatuko da. Batzordeetan talde politiko guztiak daude ordezkaturik, eta hartan legea artikuluz artikuluki aztertzen da, eta parlamentari bakoitzak aldatketak proposatzen ditu hura hobetzeko, edo etorkizuneko legearen edo haren zati baten aurkako botoa emanen duela iragartzen du. Batzordeak etorkizuneko legeari buruzko irizpen bat egiten du.

Parlamentuko lehendakariak Osoko Bilkura baterako deia egiten du. Osoko Bilkura horretan, lege proiektu edo proposamena berriro eztabaidatzen da. Legea onesten bada, Parlamentuko lehendakariak behin betiko testua Gobernuko lehendakariari igorriko dio, erregearen izenean aldarrika dezan eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean (NAO) eta Estatuko Aldizkari Ofizialean (EAO) argitara daitezen.

Legeak NAO n eta EAO n argitaratu eta ondoren hartzen du indarra, sekula ez lehenago, herritar guztiek hura ezagutzeko eta betetzeko aukera izan dezaten. Komunikabideek informazio osoa eman ohi dute tramitatzen diren lege gehienei buruz. Interneteko zenbait webgunetan jarrita daude Nafarroako Parlamentuak onetsi dituen lege guztiak.

Argitaratzen denean, legeak indarra hartzen du. Inongo herritarrek ezin du legea ez duela ezagutzen argudiatu hura ez betetzeko arrazoi gisa. Legeak herritar guztiek errespetatu beharreko arauak izan behar dute.

**Lege proiektu bat
Parlamentuan aurkezteko
unean**

Lege proiektuak eta lege proposamenak Parlamentuan aurkeztu behar dira.

Aurkeztean, erregistratu egin behar dira. Hartara, ofizialki geratzen da jasota ekimena Parlamentuan sartu dela.



6.1. Ariketak

1. Nafarroako Parlamentuan lege bat egiteko prozedurari buruzko eskema hau kopiatu eta osatu:

1. Ekimena

- proiektua:
- proposamena:

2. Parlamentuan sartzea:

3. Batzordea:

4. Osoko Bilkura:

5. Aldarrikatzea/Argitaratzea:

- Talde txikian eztabaidatu eta jaso idatziz zergatik lege bat ez ezagutzea ez den arrazoia hura ez betetzeko. Gero, azaldu zuen arrazoiak gelako gainerako taldeen aurrean.
- Presta ezazue, banaka, idazlan labur bat, eta bertan eman eta azaldu gutxienez ere hiru argudio lege bat ez ezagutzea hura ez betetzeko arrazoia ez izateko.

6.2. Urteroko oinarrizko lege bat: aurrekontuak



Ogasun kontseilaria aurrekontuak Parlamentuan aurkezteko unean

Urtero, Ogasuneko kontseilariak Parlamentuan uzten dute Nafarroako aurrekontuen proiektua, urtea hasi baino hilabete batzuk lehenago. Parlamentari guztiek proiektu hori aztertzen dute, eta egoki iruditzen zaizkien hobekuntza-proposamenak egiten dituzte. Espero izan ohi da aurrekontuak urtarrilaren terako onetsita egotea.

Comptos Ganberaren eraikina

Bi dira Comptos Ganberaren eginkizunak: Nafarroako funts publikoak fiskalizatzea eta Parlamentuari gai ekonomiko eta finantzarioetan aholkua ematea. Lan hori gauzatzen du Parlamentuari, fiskalizatzen dituen organoei eta komunikabideei txostenak igorri.

Aurrekontu bat pertsona edo entitate baten denbora-tarte jakin baterako diru-sarreraren edo gastuen plana da. Helburua da aldez aurretik planteatzea zenbat diru-sarrera izanen diren eta nondik etorriko diren, eta zenbat gastatu behar den eta zertan. Horrekin, epe jakin batean edukiko den diruaren kudeaketari buruzko plangintza egin daiteke.

Sobran geratzen den dirua aurreztu egiten da, eta orduan superabita dagoela diogu. Egindako gastu guztiak ordaintzeko dirua maileguan eskatu behar badugu, berriz, defizita daukagu. Azkenik, diru-sarrerak eta gastuak bat badatoz, azkenik, zero aurrekontua dago. Aurrekontu bat izateak segurtasun ezak gutxitzen ditu eta aukera ematen du finantzabideen kontrola izateko. Epe luzerako plangintza egiten da, eta pentsatzen da dirua zertan gastatuko den eta zergatik gastu batzuei lehenasuna eman. Eta zein diru-sarrera izanen ditugun eta zer egin dezakegun diru-sarrera horiek handitzeko.

Gure herrialdeko erakunde guztietan, urtero aurrekontuak egiten dira, diru-sarreraren eta gastuen plangintza egiteko: eskoletan edo institutuetan, unibertsitateetan, udaletan, erkidegoetan, estatuan... urteko diru-sarreraren eta gastuen aurrekontua egiten da.

Nafarroako Foru Komunitatean Nafarroako Parlamentua da erkidegoko aurrekontuak onetsi behar dituen. Parlamentuak zehazten du diru-sarrerak nondik lortuko diren (PFEZa, BEZa, sozietateen gaineko zerga bezalako zergak: urtero gora edo behera egin dezakete) eta dirua zertan gastatuko den (errepide bat, ospitale bat, industrialde berri bat, funtzionarioei ordaintzea eta abar).

Aurrekontuak dira gobernu-ekintzarako baliabide nagusia. Aurrekonturik gabe, gauzak egiteko zer diru dagoen jakin gabe, gobernuak ezin dute gobernatu. Horrenbestez, aurrekontuak onestean datza Parlamentuak erkidego honetako zuzendaritza politiko eta administratiboan daukan parte-hartzerik garrantzitsuenetako bat. Nafarroako Gobernuari dagokio aurrekontuen proiektu bat egitea eta hura Parlamentuan aurkeztea. Gehienetan, aurrekontuak urri aldera aurkezten dira. Parlamentuari dagokio horiek tramitatzea, Ogasun Batzordean lantzea, hobetzeak proposatuz, murrizke-



tak eginez, gastuak kenduz, beste gastu batzuk proposatuz, zergak handituz edo gutxituz... Azkenik, proiektua Osoko Bilkurak onetsi behar du. Osoko Bilkurak ez badu aurrekonturik onesten, aurreko urteko aurrekontuak automatikoki luzatuta geratzen dira, zeren eta erkidego edo estatu batek ezin baitio urte berriari ekin aurrekonturik izan gabe.

Parlamentuak eskatzen dion bakoitzean, Nafarroako Gobernuak bere jarduera ekonomikoari buruzko azalpenak eman behar dizkio (zertan ari den gastatzen, edo zertan ez, eta zergatik). Eta urte bukaeran, aurrekontuen betetzeari buruzko kontuak aurkeztu behar ditu Parlamentuan, Kontu Orokorra aurkeztuz. Horrekin justifikatu behar ditu aurreikusitakoak ziren diru-sarrerak eta gastuak egiazki egin diren ala ez, eta zer zenbaterako izan duten. Parlamentuak Gobernuak aurkezturiko kontuak foru lege baten bitartez onetsi aurretik, Comptos Ganberak aztertu eta ikuskatzen ditu. Comptos Ganbera Parlamentuaren menpeko organo fiskalizatzailea da, Nafarroako erakundearen kontu publikoak ikertzeko dituen.

Aurrekontuen aurreproiektua aurkezten denetik bertatik, komunikabideek informazio zehatza eskaintzen dute. Gobernuak egin nahi dituen gastuei eta aurreikusten dituen diru-sarrerari buruz. Baina Parlamentua da erabakia hartzen duena edo ez duena, eta aurrekontu horiek aldatzen dituena.



6.2. Ariketak

1. Nafarroako Gobernuaren ondoko orrialdean sartu: http://www.navarra.es/home_es/gobierno+de+navarra/accion+del+gobierno/presupuesto+y+gasto+publico/presupuestos/. Bertan, Nafarroako Gobernuaren aurtengo eta aurreko urteetako aurrekontuak irakurri ahalko dituzu. Aurkitu eta idatzi zein ataletan dauden Tuterako Ospitaleko sendagileei ordaintzeko gastu-kontusailak, edo errepideak konpondu eta eraikitzeak. Zenbat egiten dute aurtengo gastuek? Eta diru-sarrerek?

2. Egin honako eragiketa: Nafarroako aurrekontuetako guztizko gastuak zati Nafarroako biztanleak. Zenbat gastatzen du urtean Nafarroako Gobernuak biztanle bakoitzeko? Eta zenbateko dirusarrera izan behar du biztanle bakoitzeko, zorrik eduki nahi ez badu?

3. Definitu Nafarroako Parlamentuak onesten dituen zergetako batzuk; esate baterako, PFEZa, sozietateen gaineko zerga eta BEZa.

6.3. Nafarroako Parlamentuko lehendakaria hautatzea

Behin hauteskundeak egin direnean, Nafarroako Hauteskunde Batzordeak hauteskunde prozesua kontrolatzen duen erakundea da behin betikotzat jo behar ditu Nafarroan ezarritako hauteskunde mahaiek emandako datuak. Hauteskunde Batzarrak hautatuen zerrenda argitara eman eta boto gehien jaso dituzten 50 pertsoneri egiaztagiri bat ematen die, hautetsiak direla baieztatzeko. Egiaztagiri horrekin Parlamentura joaten dira, eta idazkari nagusiak bakoitzari Nafarroako parlamentaria dela dioen identifikazio txartel bat ematen dio.

Hautatu berri diren parlamentariak dei egiten zaie Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran biltzeko hauteskunde organoak foru parlamentari hautetsiak aldarrikatu ondorengo hirugarren larunbatean. Lehendabiziko Osoko Bilkura horretako lehendakaria parlamentari zaharrena izanen da, eta idazkari gisa bi gazteenak izendatuko dira. Bilkurari jarraipena eman aurretik, parlamentari guztiek honako konpromisoa hartu beharko dute: Nafarroako foru araubidea errespetatuko dutela, Konstituzioari eta legeei men egiten dietela eta karguei dagozkien betebeharrak zintzo beteko dituztela.



Osoko Bilkurako bozketa Parlamentuko lehendakaria hautatzeko

Legegintzaldi bakoitzaren hasieran, Parlamentuaren lehendabiziko bilkuran, Parlamentuko lehendakaria hautatzen da.

Osoko Bilkura horren lehendabiziko ekintza da Parlamentuko Mahaia osatuko dutenak, hau da, parlamentu-bizitza gidatuko duten pertsonak, hautatzea: lehendakaria, bi lehendakariordeak eta bi idazkariak. Mahaiko lehendakaria Parlamentuko lehendakaria ere izanen dena hautatuko da lehenbizi. Nahi duten parlamentariak beren burua Parlamentuko lehendakari izateko aurkezten dute, eta gero bozketa egiten da. Bozketa berezia da, daukan garrantzia dela eta. Parlamentuko lehendakaria da, Gobernuko lehendakariarekin batera, Nafarroaren ordezkaritza handiena duen pertsona. Gainera, irabaztea ez da nahikoa: gehiengo osoa lortu behar da; hau da, botoen erdia eta bat gehiago. Horrek berarekin ekarri ohi du alderdiek lehendakariaren izena elkarrekin negoziatzea, zeren eta normalean, alderdi bakar batek ez baitu behar adina boto, 26 alegia. 26. Halaber, agerikoa den bezala, lehendakariordeen eta idazkarien izenak ere negoziatzen dira.

Bozketa, boto-paperen bidez egiten da, ez elektronikoki. Parlamentariak paper batean Parlamentuko lehendakaria izateko hautagaien izenetatik bat jartzen dute. Parlamentari zaharrenak, behin-behinekoz Parlamentuaren buru aritzen denak, banan-banan deituko die parlamentariari beren botoak boto-ontzian utzi ditzaten. Boto-kontakteta egiten da eta gehiengo osoa lortzen duena lehendakari izendatzen da. Inork ere gehiengo osoa lortzen ez badu, bozketa errepikatuko da, baina hartan soilik parte hartu ahalgo dute lehendabiziko bozketan boto gehien lortu dituzten bi parlamentariak. Bigarren bozketa horretan berdinketarik izanez gero, lehendakari izendatuko litzateke pertsona adintsuena.

Prozedura bera erabiliko da Mahaiko bi lehendakariordeak eta bi idazkariak izendatzeko.

Behin bozketak egin direnean, Mahaiko kideak beren karguaz jabetuko dira eta Parlamentuaren buruan dagoen mahaian eseriko dira. Gero, Parlamentuko lehendakari-tza berriak Parlamentua eratutzat jo eta bilkura amaitutzat joko du.

Laburbilduz: hauteskundeen ondoren Parlamentuak eginiko lehenengo bileran, Parlamentuko lehendakari-tza aukeratzen da. Parlamentari berriak hautatzen dute eta bere eginkizun nagusien artean dago bizitza parlamentarioa gidatzea, Parlamentuko Mahaia osatzen duten gainerako pertsonekin batera.

Nafarroako Parlamentuko lehendakariak



1979

Víctor Manuel Arbeloa



1983

Balbino Bados



1987

Javier Gómara



1991

Javier Otano



1995

Lola Eguren



1999

José Luis Castejón



2003

Rafael Gurrea



2007

Elena Torres



2011

Alberto Catalán



2015

Ainhoa Aznárez

6.3. Ariketak

1. Internet bidez, lor ezazu Nafarroako Parlamentuko azken hiru lehendakarien argazki bat. Jaso ezazu, halaber, horietako bakoitzari buruzko albiste bat, Parlamentuarekin zerikusia duena.

-
2. Desberdindu gehiengo osoa eta gehiengo soila.

-
3. Presta ezazu, talde txiki batean, elkarrizketa bat Parlamentuko lehendakariarekin.
 - Hautapen prozesuari buruzko galderak.
 - Parlamentuko lanari buruzko galderak.
 - Bere aurrekariari buruzko galderak.
 - Anekdotak batzuei buruzko galderak.
 - Bestelako galderak.

Nafarroako lehendakari demokratikoak

1979



Jaime Ignacio Del Burgo

1980



Juan Manuel Arza

1983

Juan Manuel Arza
UCD

1984



Jaime Ignacio Del Burgo. PDP

1984

Gabriel Urralburu
PSN-PSOE

1987

Gabriel Urralburu
PSN-PSOE

1991

Juan Cruz Alli
UPN

6.4. Nafarroako Gobernuko lehendakaria hautatzea


Nafarroako Gobernuko lehendakaria hautatzea da Nafarroako Parlamentuaren eginkizun garrantzitsuenetako bat. Izendapena legegintzaldiaren hasieran egiten da, foru hauteskundeak eta berehala, behin Parlamentua eratu eta haren kideek Parlamentuko lehendakaria hautatu dutenean.

Hain zuzen ere, lehendabiziko osoko bilkuran hautatua izan ondoren Nafarroako Parlamentuko lehendakariak duen lehenbiziko lana da parlamentu-taldeetako eledunekin edo ordezkariekin biltzea eta haiei galdetzea zein hautagai babestuko luketen gobernuko lehendakaria izateko eta horretarako zenbat boto dituzten. Parlamentuko lehendakariaren ustez pertsona batek hautatua izateko aukerak dituenean, haren hautagaitza proposatu eta osoko bilkurarako deia egiten du.

Osoko bilkura horretan, Gobernuko lehendakaria izateko hautagaiak programa bat aurkeztu behar du hautatzen badute aurrera eraman nahi dituen ekintzekin. Programa hori babesten duten parlamentu-talde guztiak haren alde azalduko dira. Kontra dauden taldeek programaren aurkako argudioak azalduko dituzte beren ezezko botoa justifikatzeko.

Hautagaiak lehendabiziko bozketan gehiengo osoa (26 boto) lortzen badu, izangaia Nafarroako Gobernuko lehendakari izendatuko dute. Hala ez bada, bigarren bozketa bat egingen da lehendabizikoa izan eta hogeita lau ordura. Bigarren bozketan, nahikoa izanen da gehiengo soila eskuratzerekin (aldeko boto gehiago kontrakoak baino) Gobernuko lehendakaritza lortzeko.

Hautagaiak lehendabiziko edo bigarren bozketan behar diren gehiengoak lortzen ez baditu, prozesua errepikatu egingen da: Parlamentuko lehendakariak berriz kontsultak egin beharko ditu eta Gobernuko lehendakaria izateko beste hautagai bat proposatu beharko du. Hautagaiak Parlamentuaren konfiantza lortzen duenean, Parlamentuko lehendakariak Nafarroako Gobernuko lehendakari gisa proposatuko du. Izendapen hori erregeak sinatuko du.



Lehendabiziko bozketatik hogeita hamar egun natural iragan eta inongo hautagaik ez baditu behar diren botoak lortzen, Parlamentua desegin eta berehala hauteskundeak deituko dira.

Legegintzaldian zehar, behin Gobernuko lehendakaria izendatu denean, Nafarroako Parlamentuak beste pertsona bat hauta dezake lehendakari gisa, betiere ondokorenbat gertatzen bada:

- Lehendakari hautetsiak dimititzen badu.
- Lehendakariak karguan jarduteko ezgaitasun fisiko bat baldin badu edo hil egin bada.
- Lehendakari gisa jarduteko ezgaitua izan bada epai baten bidez.
- Zentsura mozio bat onesten bada, betiere aurretik behar den gehiengoa lortuko duen ordezkari hautagai bat aurkeztuta.
- Lehendakariak konfiantza-eskaera aurkeztu eta Parlamentuak ezezkoa ematen badio.

Baina Gobernuko lehendakariak erabaki dezake, muga batzuekin, Parlamentua desegitea eta berriz hauteskundeak deitzea.

Laburbilduz, Nafarroako Gobernuko lehendakaria Parlamentuak hautatzen du. Gobernuko lehendakariak bere lanaz eta kontseilarienaz erantzun beharko du Parlamentuan. Parlamentuak lehendakaria kargutik kentzea eska dezake zentsura-mozio baten bitartez.

6.4. Ariketak

1. Definitu ondoko hitzak:

- Legegintzaldia.
- Parlamentuko eleduna.
- Gobernu-programa:
- Gehiengo soila:
- Zentsura-mozioa:

2. Laburpen-testu baten bidez, aipatu zein urrats egin behar diren Parlamentuak Nafarroako Gobernuko lehendakari izendatzeko.

6.5. Zentsura mozioa


Nafarroako Parlamentuak bere betebeharren artean du Nafarroako Gobernuaren, lehendakariaren eta kontseilariaren lana kontrolatzea. Kontrol lan hori egiteko, Parlamentuak zenbait tresna dauzka:

- Batzordeek galderak egin ditzakete eta informazio-bilkurak egin ditzakete. Gobernukideek galderei erantzun eta bilkuretara joan behar dute.
- Parlamentuaren Osoko Bilkuretan ere, Gobernuak bere programaren berri eman behar du, eta arlo jakin batzuetan zer lan egiten duen azaldu beharko die parlamentariari. Osoko Bilkuretan, askotan, Gobernuko lehendakariak hartzen du parte.

Dena den, Parlamentuak egiten duen kontrol- eta informazio-lan hori harantzago joan daiteke, zeren eta Parlamentuak, zentsura mozioaren bitartez, Gobernuko lehendakaria aldatzen ahal baitu. Horretarako, ondoko baldintzak bete behar dira:

Aurkezpena. Zentsura mozioa gutxienez ere parlamentarien bostetik batek aurkeztu behar du (10 parlamentarik), eta horietako batek lehendakari gai izan beharko du, dagoena ordezteko.

Onarpena. Mahaiak egiaztatuko du mozioak beharrezko baldintzak betetzen dituela, tramitera onartzen du eta argitaratzen du. Lehendakariak Osoko Bilkurarako deia egiten du, beranduenez 10 eguneko epean.



Zentsura mozioa Parlamentuak (edo beste ordezkartza-organo batek, esate baterako udal batek) botere exekutiboaren (lehendakaria, alkatea eta abar) aurka aurkezturiko proposamen bat da. Berarekin dakar beste hautagai bat proposatzea hura ordezteko eta bozketa bat egitea hautagai horrek behar duen gehiengo lortzeko. Horrenbestez, ez da nahikoa ezetz esatea. Zentsura mozioan, beste aukera bat proposatu behar da.

Osoko Bilkurako eztabaida. Behin Osoko Bilkura hasi denean, zentsura mozioa aurkeztu zuten parlamentarietatik batek hura defendatu beharko du: Gobernuko lehendakaria zergatik aldatu nahi duen azalduko du. Ondoren, Gobernuko lehendakaria izateko proposatu den izangaiak esku hartuko du, eta bere gobernu-programa azalduko du. Azalpen horien ondoren, atsedean tarte bat egiten da. Gero berriz hasiko da eztabaida. Hitza izanen dute, orduan, zentsura mozioaren aurka daudenak —haien artean, Gobernuko lehendakaria—. Gero, zentsura mozioaren aldekoek erantzunen diete.

Bozketa eta ebazpena. Eztabaida bukatzen denean, Parlamentuko lehendakariak bozketa egiteko ordua finkatuko du. Mozioak aurrera egin dezan, gehiengo osoa lortu behar du (26 parlamentariren botoa). Mozioa onesten bada, Gobernuko lehendakariak dimisioa aurkeztu beharko du eta Parlamentuko lehendakariak gertatutakoak erregeari jakinarazi beharko dizkio, Nafarroako Gobernuko lehendakariaren dimisioa eta hautagai irabazlearen izena argitara daitezen. Mozioa onesten ez bada, hura aurkeztu dutenek ezin dute beste bat aurkeztu denbora tarte batez. Gobernuko lehendakari gisa lehen zegoenak jarraituko du.

Zentsura mozioarekin, azken batean, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren lana kontrolatu ez ezik, haren dimisioa ere eska dezake eta, aldi berean, beste lehendakari bat izenda dezake. Bi gauza horiek elkarrekin joatearekin —kargutik kentzea ez ezik, lehendakari berria izendatzea ere— erakundeen egonkortasuna bermatu nahi da. Ez da nahikoa parlamentariak ezezkoaren inguruan batzea. Beste hautagai bati eman behar diote gehiengoaren babes.

7. NOLA EGITEN DA
LAN PARLAMENTUAN?

7. Nola egiten da lan Parlamentuan?

Nafarroako Parlamentuak egiten duen lana printzipio batean oinarritzen da, **publikotasunean**: eztabaida ofizial guztien aktak egiten dira, eta eztabaida horiek, askotan, grabatu egiten dira. Printzipio horren aplikazioak bidea ematen du ikusteko Parlamentuak nola egiten duen lan (Internet bidez, irradian, telebistan, egunkarietan) eta parlamentarien hitzaldiak entzun ahal izateko. Halaber, Parlamentuaren argitalpen ofizialen —Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala eta Bilkura Egunkaria— irakurketak bidea ematen du lantzen diren gaiei buruzko akordioak eta iritziak ezagutzeko.

Parlamentuak erregelamendu bat dauka, bere barneko funtzionamendua arautzen duena. Haren arabera, urtean zehar, bi bilkuraldi izaten dira: urtariletik ekainera eta irailetik abendura. Aparteko kasuetan ere bil daiteke, aldi horietatik kanpo.

Oro har, Parlamentua bilkura arruntetan biltzen da, astelehenetik ostiralera. Legegintzaldiaren hasieran hautatutako 5 parlamentarik osatzen duten mahai bat Parlamentuko gainerako organoen lanak zuzentzeaz arduratzen da. Mahaiko lehendakaria, gainera, Parlamentuko lehendakaria da eta Osoko Bilkurak zuzentzen ditu.

Nafarroako Parlamentuko batzorde bat

Batzordeetan, xehetasun guztiekin aztertzen dira lege proiektuak (Nafarroako Gobernuak aurkeztutakoak) eta lege proposamenak (parlamentariak, udalek nahiz herritarrek aurkeztutakoak).



Parlamentari hautetsiak parlamentu-taldetan biltzen dira. Talde horiek hauteskunde-etara elkarrekin aurkeztu eta proiektu komun bat duten alderdi edo koalizio bateko kideek osatzen dituzte. Taldeek bulego bat daukate Parlamentuan bertan, lana zentralizatzeko.

Parlamentu-talde bakoitzak eledun bat izendatzen du. Parlamentu-talde guztietako eledun guztien batzarrari Eledunen Batzarra esaten zaio. Organo horrek Parlamentuko Mahaiari laguntzen dio erabakiak hartzen. Eledunen Batzarrean, erabakiak boto ponderatuaren sistema erabiliz hartzen dira. Eledun bakoitzak bere taldean zenbat parlamentari dituen, hainbeste boto izaten ditu.

Lege proiektuak edo lege proposamenak eztabaidatu, aldatu edo zuzentzeaz batzordeak arduratzen dira. Batzordeak dira gai ezberdinetan —etxebizitza, osasuna, ekonomia eta ogasuna, landa garapena eta ingurumena, eta abar— espezializaturiko organoak, non proportzionalki ordezkatuta baitaude parlamentu-talde guztiak. Lege-



Nafarroako Parlamentuko Mahaia Osoko Bilkura batean Nafarroako Parlamentuko Mahaia Osoko Bilkurak zuzendu eta koordinatzen ditu. Osoko Bilkura horietan legeak onesten dira, Parlamentuaren eskumenei jarraituz. Mahaiko burua Parlamentuko lehendakaria da. Osoko Bilkurak parlamentari guztiak (50) eta Nafarroako Gobernu kideak hartzen ditu, parlamentariak izan nahiz ez izan. Parlamentuko kideek baizik ezin dute botoa eman.

proposamen edo -proiektuaren testua eztabaidatu ondoren, Osoko Bilkurara pasatzen da, eta bertan onetsi edo baztertuko da. Gainera, batzordeek Gobernuaren zeregina kontrolatzen dute, horretarako galderak, informazio-bilerak eta abar eginez. Bilera horietara Gobernu kide bat edo gehiago joaten dira.

Parlamentuko Osoko Bilkurak eginkizunik garrantzitsuenak dauzka: legeak onesten ditu, haiei buruz batzordeek prestatuturiko irizpenei jarraituz; Gobernuko lehendakaria hautatzen du eta Gobernuaren jarduna kontrolatzen du aurrekontuak onetsiz, galderen bitartez, zentsura mozioen bitartez; adierazpen instituzionalak egiten ditu gai publikoei buruz; Estatuarekin nahiz beste erkidego batzuekin eginiko hitzarmenak onesten ditu.

Parlamentuak bilkurarik egiten ez duen aldietan, Batzorde Iraunkor deritzon organo batek bermatzen du Legebiltzarraren iraunkortasuna eta erakunde horrek bere eginkizunak betetzen segitzea. Ohiz kanpoko eta premiazko beharriazko justifikatzen dute Batzorde Iraunkorren jarduera. Batzorde horren lehendakaria Parlamentuko lehendakaria bera da, eta batzordekideek «boto ponderatu» deritzona daukate.

7. Ariketak

1. Sartu honako orrian: <http://www.parlamentodenavarra.es>. Hautatu zure lana zein hizkuntzatan egin nahi duzun. Aukeratu «Osaera eta organoak». Dokumentu batean, ondoko galderak kopiatu eta erantzun:
 - Zein pertsonak osatzen dute gaur egun Parlamentuko Mahaia?
 - Zein pertsona daude Eledunen Batzarrean?
 - Zenbat batzorde arrunt daude Parlamentuan?
-
2. Aipatu zein diren Nafarroako Parlamentuan dauden alderdi politikoak, bai eta hura osatzen duten parlamentarien kopurua ere. (Informazioa Nafarroako Parlamentuko webgunean lortu ahalko duzu).

Aro Modernoan —XVI., XVII. eta XVIII. mendeak—, Nafarroako Gorteen lehendik ezarritako arauak jarraituz lan egiten zuten. Horretarako, lehendik zituzten edo denborarekin eskuratzen joan ziren mekanismo batzuk bazituzten, lana errazten zietenak. Mekanismo horien artean, ondokoak azpimarratu behar ditugu:

7.1. Aro Modernoan, nola egiten zuten lan Gorteetan?

Erregeordeak deitzen zituen Gorteak, bera izaten zen burua eta berak ematen zien amaiera, erregearen izenean. Batzuetan, deialdi batetik bestera urteak pasatzen ziren. Gorteei hasiera ematen zienean, erregeordeak proposamena deituriko hitzaldia egiten zuen. Bertan, landu beharreko gaiak adierazten zituen, bai eta erresumari zein zerbitzu edo eskari egiten zion ere, Koroaren premiak asetzeko. Erregeordeak zuzenean ebazten zituen egiten zizkieten eskariak, baina batzuetan zenbait gai erregearen beraren eskuetan uzten zituen.

Saioak isilpekoak izaten ziren. Erregea Gorteak irekitzeko eta ixteko ekitaldietara baizik ezin zen joan. Hiru estamentuek —elizarena, nobleena eta hiribildu onena— elkarrekin eztabaidatzen zuten, baina bakoitzak bere aldetik ematen zuen botoa. Oro har, elizaren estamentua otzanagoa izaten zen Koroaren jarraibideak onartzeko



Diputazioaren jauregia

Aro Modernoan, Diputazioaren osaketa Gorteen osaketan oinarritzen zen. Estamentu bakoitzak bere ordezkariak hautatzen zituen:

Nobleen besoa: bi kide, bi boto.

Elizaren besoa: kide bat boto batekin.

Unibertsitateen besoa: lau kide, bi boto (bi Iruñekoak ziren eta bien artean boto bat zuten; eta

bi gainerako merindadeetatik: horiek ere bien artean boto bakarra zuten).

Erresumako Diputazioaren erabakiak gehiengoz hartzen ziren, estamentuak bereizi gabe.

Gaur egun, Nafarroako Gobernuak edo Nafarroako Diputazioko lehendakaria Parlamentuak hautatzen du. Gero, lehendakariak bere kontseilariak hautatzen ditu.



Nafarroako Gorteen zilarrezko boto-ontziak

Garai bateko Nafarroako Gortean honakoak zeuden ordezkatura: nobleak (50 inguru bertaraten ziren), elizgizonak eta «hiribildu onak». Ez zen hauteskunderik izaten. Estamentu bakoitzak bere aldetik ematen zuen botoa. Boto-ontzi batean utzi behar zen botoa, eta bola zuriak eta beltzak erabiltzen ziren horretarako.

garaiak; estamentu horretako kideek, nobleek bezalaxe, beren burua ordezkatzeko zuten. Hirugarren estamentuak, Nafarroako Erresumako 38 hiri edo hiribilduetako ordezkariak, XVII. mendetik, botere absolutua zuten egokitzat jotzen zuten moduan botoa emateko —nahiz eta beren herriaren ordezkariak izan—.

Ebazpen bat onesteko, estamentu bakoitzaren boto gehienak lortu behar ziren. Bozketa ez zen batera egiten: estamentu bakoitzak bere aldetik bozkatzen zuen, ordezkari bakoitzak sartu beharreko bola zurien edo beltzen sistema baten bitartez. Legea onetsiko zen soilik hiru estamentuek onespina ematen bazuten. Gero, legea argitaratu egin behar zen indarra hartu aurretik.

Behin bilkura bukatu ondoren, batzartutakoek berek, ez erregeak, erabakitzen zuten biltzarra desegitea. Halere, zenbait deialditan, Gorteak bilduta egoteko gehieneko epe bat adierazten zen.

Hauexek ziren Gortean aztertzen ziren gai garrantzitsuenak: kontraforuaren erreklamazioak, lege berriak egiteko eskariak eta zerbitzuari edo zergen ordainketari buruzko bozketa. 1692tik aurrera, eta Gorteen lege batek hala aginduta, azaldu-tako ordena horren arabera aztertzen ziren.

Kontraforua honakoa dela ulertzen da: «erregeak, erregeordeak, auzitegiek edo langileek urratzea foruak, legeak, ordenantzak, usadioak, argitasunak, salbuespenak, askatasunak eta pribilegioak». Gorteek laido horri konponbidea emateko eskatzen zuten, Nafarroako erresumako legeak errespetatzen ez ziren kasuetan. Eskariak era askotakoak izaten ziren: ogasunari, justizia administrazioari, tokiko gobernuari ekonomiarik eta abarri buruzkoak.

1561ean, Gorteek adierazi zuten Nafarroan eragina zuten legeak Gorteei eskaria egin eta ondoren egin behar zirela. Legeak, hartara, erregearen eta Gortean ordezkari-ko erresumaren arteko itun bat bilakatzen ziren. Onetsiz gero, «Lege Koadernoak» deituta argitaratzen ziren, eta erregeordearen «dekretuetatik» bereizten hasi ziren.

Erregeordeak, funtsean zerbitzua edo dohaintza lortzeko deitzen zituen Gorteak. Borondatezkoa zela esaten zen arren, Nafarroako Gorteek sekula ez zitoten ezezkorik eman dohaintza edo zerbitzu horri. Dohaintzaren onuraduna Koroa zen. Hura emate-rakoan, zenbatekoa eta ordaintzeko baldintzak adierazten ziren. Horrenbestez, errege ogasun bat zegoen (alkabala, kuartelak, dohaintza eta abar bezalako zergak kobratzen zituen) eta erresumaren ogasun bat, zeinarentzat beste zerga batzuk kobratzen baitziren (esate baterako, binkulua).

Azken batean, Nafarroako Gorteak, Aro Modernoan, erresumako estamentuen araberrako ordezkariak ziren. Haren bilkuretan, ahaleginak egiten ziren lege indardunak betetzeko, eta bide horretan eskari zehatzak egiten zitzaizkion erregeordeari kontraforuei konponbidea emateko. Halaber, lege berriak egitea proposatzen zen eta Koroari erresumak eskatutako zergak ematen zitzaizkion.

8. NAFARROAKO GORTEAK DENBORAN ZEHAR

8. Nafarroako gorteak denboran zehar

905-1512

Iruñeko Erresuma/Nafarroako Erresuma

Honakoak dira aldi honetako erakunde nagusiak: Erregea, Gorteak, Errege Kontseilua, Gorte Orokorra edo «Cort general» deitutakoa eta Comptos Ganbera.

1515-1841

Nafarroako Erresuma anexionatua

Erregeorde batek ordezkatzeko du Nafarroako erregea, zeina, besteak beste Gaztelako eta Aragoiko erregea ere baden. Gorteek garrantzi handiagoa hartu zuten. Gorte Orokorra eta Comptos Ganberak lehengoan dira. Erresumako Diputazioa agertzen da.

Nafarroako Erresumaren jatorria IX. mendean dago, Iruñeko Erresuma izenarekin. Gero, izena aldatu eta Nafarroa izena hartu zuen. Erresuma pixkanaka joan zen sortzen, zenbait egitate abiapuntu hartuta: arabiarrek lur menditsuenak abandonatu zituzten, arabiarrekin itunak egin ziren, lur berrietan borroka egin eta konkistak egin ziren...

Boterea agintarien artean banatu zen eta erakunde batzuk sortu ziren. Aldi berean, erresuma berria zabaltzen joan zen. Erresuman honakoak dira nabarmentzen diren erakundeak: erregea, zeina botere handiena duena baita, harekin batera doan eta hari aholku ematen dion gorteak eta auzitegiak. Gainera, kontrolerako erakunde batzuk ere badaude; esate baterako, Gorteak, non noblea, elizgizonak eta hiribilduetako biztanleak dauden. Gorteek, denborarekin, botere gehiago hartu zuten.

Antolamendu soziala estamentuetan oinarritzen zen. Gorteen osakera ere bai: nobleak, elizgizonak eta 38 herritako ordezkariak. Hautaketa ez zen demokratikoa izaten. Baina erregeak foruak errespetatu eta hobetu behar izateak, izendatua izan baino lehen, bereziki XIII. mendetik aurrera, berarekin zekarren arau batzuen menpe jarri behar izatea.

Albako dukearen tropek Nafarroa inbaditu ondoren (1512), Nafarroako errege berria Gaztelakoa izan zen. Nafarroako erregeak Frantziara egin zuen ihes, eta Nafarroak bere nazioarteko identitatea galdu zuen. Gaztelak Nafarroa anexionatu zuen.

Aurreko garaiko erakundeek irauten dute, baina erregearen ordezkaria Gaztelako erregeak izendatutako erregeorde bat da. Honako erakundeak mantentzen dira: Errege Kontseilua—justizia emateko organoa—, Gorte Orokorra—auzitegi tekniko bat— eta Comptos Ganbera—ogasunarekin eta ondarearekin loturiko gaietarako—.

Erresumako Gorteek estamentu-izaera edukitzen jarraitzen dute eta nafarren interesak ordezkatzeko dituzte Erregearen aurrean. Gorteek zenbait bide zituzten beren boterea agerrarazteko:

- Bilkura bakoitzean Koroaren arauak arakatzeko ziren, «laido» edo «kontraforuren bat» bazuten jakiteko. Ondoren, Koroaren prestazio ekonomikoak ordaintzen zituzten, «dohaintza» deitutakoaren bitartez.
- Gainera, Gorteek beraientzat hartzen zuten «argitaratzeko» eskubidea; izan ere, tramite hori gabe legeak ez zuten indarrik izaten.



Lege Itundua

1833an Lehenbiziko Karlistaldia hasi zen. Gerra 1839an bukatu zen. Gerraren ondorioak, ikuspegi instituzional eta politikotik, 1841eko Lege Itunduan ezarri ziren. Nafarroak erresuma izateari utzi eta probintzia bihurtu zen. Nafarroako Gorteak desagertu egin ziren. Hala eta guztiz ere, Diputazioari eta foru araubideko legeei utsi zitzaizkien.

1576an Foru Diputazioa sortu zen, Gorteen ordezkariak iraunkor baten gisara. Haren eginkizuna zen Gorteek erabakitakoa betetzea, bilduta ez zuden bitartean, eta foruen aurkako lege-urraketak gerta ez zitezen zaintzea.

Erresumako Diputazioa, Aro Modernoaren bukaeran, garrantzia hartzen joaten da. Erakunde iraunkorra da, eta Gorteak, berriz, oso noizean behin biltzen dira. Batzuetan, bi edo hiru urtez behin.

1841-1979

Nafarroa, Espainiako probintzia

Nafarroako erresuma desagertzen da, eta erregeordea (haren orde, gobernadore dago), Gorteak... Diputazio probintzialak irauten du, eta aurrerago Foru Kontseilu Administratiboa sortzen da.

1979-Gaur egun arte

Comunidad Foral de Navarra

Honakoak dira erakunde nagusiak: Nafarroako Parlamentua edo Gorteak, Nafarroako Gobernu edo Diputazioa eta Nafarroako Auzitegi Nagusia.

Lehenengo Karlistaldian (1833-1839), Espainian karlistak eta liberalak elkarren aurka jarri ziren. Liberalak estatu zentralizatuaren aldekoak ziren. Gerra zibil bat izan zen. Liberalak garaile atera ziren, Espainiako eta Nafarroako hirietan bereziki baitzuten indarra. Espainiako estatuak ordura arte zituenak baino botere gehiago eskuratu zituen. Nafarroak erresuma izateari utzi zion, eta Gorteak, auzitegiak, aduanak erregeordea eta abar ere galdu zituen. Nafarroarentzat beste unitate administratibo bat instituzionalizatu zen: probintzia. 1841eko Lege Itundua aldarrikatu zen, eta hura izanen zen Nafarroaren eta Estatuaren arteko harreman berrien oinarria. Nafarroak erresuma izateari utzi zion probintzia izateko, baina bere foru araubidearen berezitasun batzuk gorde zituen.


Nafarroako Gorteen azken bilkura 1829an izan zen. Haren eginkizunak Nafarroako Gortek eta Foru Diputazioak hartu zituzten.

Lege Itundua aldarrikatu zenetik, Nafarroako Diputazioak Nafarroako gobernu baten eginkizunak bete izan ditu. Zergak bildu eta aurrekontuak onetsi ditu. Horiekin, bideak eta errepideak egin ditu, eta mendien eta administrazio moderno baten beste zerbitzu batzuen antolaketaz eta zainketaz arduratu da.

1978ko Espainiako Konstituzioak, lehenengo xedapen gehigarrian, dio «Konstituzioak lurralde forudunetako eskubide historikoak babestu eta errespetatzen dituela». Lurralde horien artean, Nafarroa dago. Baina Konstituzioak foru araubideen eguneratze orokorra exijitzen zuen, Espainiako demokraziara egokitzea.

1979an, sufragio unibertsalez, Nafarroako Foru Parlamentua eta Foru Diputazioa hautatu ziren. Nafarroaren eta Estatuaren arteko itun bat negoziatzeko prozesua abiatzeko lehenbiziko pausoa izan zen. Itun horrek, izan ere, Nafarroaren marko juridiko eta instituzionala berritu zuen. Ituna bururaino eramateko, 1982an Nafarroako Foru Erautza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa aldarrikatu zen. Foru Hobetzeak foru araubidearen demokratizatzea ekarri zuen, eta berezitasun batzuk gorde zituen Nafarroaren eta Estatuaren arteko harremanei dagokienez.

Aldi horretan, Nafarroako Gorteak edo Parlamentua berriz ezarri ziren. Demokratikoki hautatzen dira. Parlamentuaren zereginak dira, besteak beste, Nafarroako Gobernuko lehendakaria hautatzea, gobernu-jarduna kontrolatzea, Nafarroako Aurrekontua onestea eta legeak onestea. Nafarroako autonomia 1978ko Konstituzioaren balio demokratikoen argitan aintzat hartu behar da.



Nafarroako Gorteak XIX. mendeko grabatu baten arabera

Aro Modernoan honako estamentuek osatzen zituzten Nafarroako Gorteak: nobleak, Eliza eta hiribildu onak. Estamentuek bakoitzak bere aldetik ematen zuten botoa. Lege bat onesteko, hiru estamentuek bakoitzak bere aldetik onetsi behar zuten.

Egukarietako lehen orrialdeak Nafarroako Parlamentua hautatzeko aurreneko hauteskundeen ondoren.





8. Ariketak

1. Osatu koadro hau, historian zehar Nafarroako Gorteak edo Parlamentua zer izan diren azaltzeko.

	900 -1512	1515-1841	1841-1979	1979-Gaur arte
Gortetik edo Parlamenturik ba al dago?				
Nork osatzen ditu?				
Eginkizuna				

2. Bilatu ondoko hitzen esanahia (hiztegian, Interneten eta abarretan):

- Kontraforua
- Estamentuen arabeko gizartea
- Karlista
- Lege Itundua.

3. Irakurri, arretaz, errege zedula hau.

Testuinguru honetan, 1630eko otsailaren 6an (hain zuzen ere, orain dela 375 urte), Felipe IV.a erregeak «Koroaren alde eginiko zerbitzu handiak aitortzeko eta Errege Ogasunari laguntza eman izana eta Italiako gerretan parte hartu izana eskertzeko, Hiribulduari (Corella) hiri titulua ematen dio, bere ohore, grazia, mesede, askatasun eta lehentasun guztiekin, horren barne dela Gorteetan eserlekua izatea, egindako mesedeari dagokion bezala. Corella Tuterako merinoaren jurisdikziotik askatzen da, eta zutoihala altxatu ahalko du errege-zinetan, inongo menpetasunik edo loturarik gabe».

Zergatik izendatzen du erregeak Corella hiri gisa eta zergatik ematen dio eserlekua Nafarroako Gorteetan? Demokratikoa al da izendapen hori? Zergatik? Zertan oinarritzen da izendapena?

8.1. Foru Hobetzea

1982ko martxoaren 8an, Nafarroako Diputazio edo Foru Gobernuak eta Espainiako Gobernuak itundu zuten Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren testua. Lege hori sortzeko prozesuak hiru urte iraun zituen, eta haren abiapuntua izan zen Nafarroako erakundeak demokraziaren arabera egokitzea.

1978an, espainiarrek botoa eman eta gehiengoz onetsi zuten Espainiako Konstituzioa, zeinaren bitartez gure herrialdean demokrazia ezarri baitzen. Hortik aurrera, espainiar guztiek hauteskunde demokratikoetan hautatzen dituzte Espainiako gobernuak. Konstituzioak, gainera, Estatua autonomia erkidegoen arabera antolatzen du. Horietako bakoitzean, parlamentu demokratikoak daude, eta parlamentu horietan hautatzen dute erkidegoko lehendakaria.

Prozesu hori Nafarroan aurrera eramateko, 1979ko urtarrilaren 26an, foru-erakundearen demokratizazioari buruzko dekretu bat argitaratu zen. Dekretu horren bitartez, apirilean, hauteskunde demokratikoak egin ziren, Nafarroako lehendabiziko parlamentu demokratikoa eta Diputazioko zazpi kideak hautatzeko. Hautestontzietan hautaturiko pertsonak, besteak beste, Nafarroak etorkizunean izanen zuen bizikidetzaren politikaren oinarriak antolatu behar zituzten, gobernu zentralarekin ituna eginez. Honakoak egin behar ziren:

- Idatzi une horretatik aurrera aldizka (lau urtez behin) hauteskundeak eginen zirela Nafarroan parlamentu demokratiko bat hautatzeko, eta parlamentu horrek zer eginkizun izanen zituen erabaki.
- Esan nork eta nola hautatuko zuen Nafarroako Gobernuko lehendakaria.
- Justizia Auzitegi Nagusi bat ezarri, gizarte-aztiak ebazteko.
- Adostu zein gaitan duen Nafarroan eskumena (alegia, agintea) Nafarroako Gobernuak, eta zeinetan izanen zen eskudun Estatua.


Foru Hobetzeari buruzko Legeak Nafarroako gizartearen demokratizazioa ekarri zuen. Hortik aurrera, Nafarroako biztanleek beren agintariak izendatu ahal izan zituzten. Foru Hobetzea 1982ko martxoaren 15ean onetsi zen Nafarroako Parlamentuan: aldeko 49 boto eta aurkako 5 boto izan ziren. Gero, Gorte Orokorrek onetsi zuten, eta 1982ko abuztuaren 16an hartu zuen indarra.




- Toki entitateei (udalak eta abar) beren boterea aitortu, zeini bere mugapean.
- Nafarroaren ikurrak, hiriburua, hizkuntza ofizialak, lurraldea eta abar ezarri.

Hiru urtean zehar (1980tik 1982ra bitarte, biak barne), bi batzorde batzartu ziren, bata Nafarroakoa eta bestea Estatukoa, eta eztabaidan aritu ziren harik eta aurreko gaiak eta beste batzuk biltzen zituen testu bat egin arte. Azkenean, testua Foru Hobetzeari buruzko Legea izan zen, Nafarroako Parlamentuak eta Gorte Orokorrak (Kongresuak eta Senatuak) gehiengo osoz onetsi baitzuten.

Auzi gehien sortu zituen gaietako bat, bai Nafarroan, bai Foru Hobetzea eztabaidatu zuten bi batzordeetan —Nafarroakoa eta Estatukoan—, honakoa izan zen: nola eman jarraitutasun historikoa foru araubideari Estatuko marko demokratiko berrian. Izan ere, foruek Nafarroari berezitasun batzuk bermatzen zizkieten Estatuaren barruan, arlo jakin batzuetan: zergen ordainketa, kupoa, gai jakin batzuei buruzko lege berezituak indarra izatea (ondorengotza, sozietateak...), Foruzaingoa eta abar. Berezitasun horiek Foru Hobetzeari buruzko Legean jaso ziren. Egitate hori nabarmentzeko, Nafarroari Nafarro-





ako Foru Komunitatea esan zitzaion, eta ez komunitate autonomoa. Baina berezitasun horiek aitortzeak ezin zuen kaltetu Estatuaren batasun konstituzionala.

Azken batean, Foru Hobetzea Nafarroako erakundeen demokratizatzea izan zen. Aldi berean, foru araubideak denboran zehar Nafarroan ahalbidetutako berezitasun batzuk gordetzen ziren.

1982ko Foru Hobetzeari buruzko botoak

	Aldekoak	Aurkakoak	Abstentzioak
PARLAMENTUA	49	5	
DIPUTATUEN KONGRESUA	266	9	1
SENATUA	148	6	

8.1. Ariketak

1. Honako hitz hauen esanahia bilatu:

- Autonomia erkidegoa
- Foru Hobetzeari buruzko Legea
- Konstituzioa
- Foru araubidea

2. Ikertu eta idatzi zein pertsonak osatu zuten Foru Hobetzeari buruzko Legea negoziatu zuen Nafarroako batzordea.

8.2. Foruak edo lege zaharrak

1441ean, Aragoi ibaia, uholde handi baten ondorioz, desbideratu egin zen, eta desbideratzean Funesko dermiotik lur zati handi bat bereizi zuen: «Pennalfonsoren» ibar-basoa. Villafrancakoek ibar-baso horren jabetza erreklamatu zuten. Foruak jasotzen zuen ibai bat bere ibilbidetik atera eta dermio bat bitan zatitzen bazuen, uharte edo irlatxo bat osatuz, finkaren jabeak (oraingo kasuan Funeskoek) lur horietarako eskubidea galtzen zutela, baldin eta oilo batek bere txitekin antzinako ibilbide lehortua zeharkatu ahal bazuen. Caparrosoko notarioaren aurrean, eta behin konprobatu ondoren egiaz ibaiak ibilbidea aldatua zuela, Villafrancako erregidoreek oilo bat eta bere txitak askatu zituzten, eta, guztien aurrean, *«ychada aqueilla, encauçó el dicho gleral et canaliza por donde la dicha agoa solía pasar et correr del dicho río de Aragón»*. Horrekin, «demostraturik» geratu zen ibar-basoa Villafrancakoena zela.

Foruak arau, eskubide eta pribilegioen multzo bat ziren. Haien xedea zen, oro har, gizarteko bizitza arautzea. Lege horiek ez ziren herritar guztiek hautaturiko parlamentu batek idatziak. Herri bat edo batzuk edo biztanle batzuk ezarrita zeuden lurraldeetako erregeak edo jaunak emanak edo ezarriak ziren. Gizarte-auziak ebazteko arau horietara jotzen zen, edo zuzenean lurraldeko jaunarengana edo erregearengana, zeren

Foruen monumentua

Espainiako Ogasun ministro Germán Gamazo jaunak 1894. urterako aurrekontuen proiektua eman zuen argitara. Proiektuak aurreikusten zuen Nafarroan eta Estatuak gainerako lurraldeetan kontribuzio-neurri berak aplikatzea. Aurrekontuen argitalpenak Nafarroako Diputazioaren, udalen eta egunkarien berehalako erreakzioa eragin zuen. Manifestazio handi bat izan zen Iruñeko kaleetan, eta gobernadore zibilarik protesta-idazki gogor bat eman zitzaion. Azkenean, aurrekontuen proiektua aldatu zen eta Nafarroako kontribuzio-berezitasunei eutsi zitzaion. Berezitasun horien muina zen Diputazioak kobratu behar zituela zergak, eta Estatuari kopuru bat ordaindu behar ziola, kupoak, bi erakundeen artean negoziatutakoa.



eta horiek, lurraldeetako jabeak izateaz gainera, justizia banatzen zutenak baitziren. Foruak, gizarte-auziak ebazteko garaian, kontatu dugunaren moduko arauetara jotzen du, eta lekuko, eskritura, zin-egite eta abarretara... bai eta prozedura naturaletara ere.

Foruek, halaber, lege batzuk jasotzen zituzten, non herri bateko biztanleen askatasun batzuk zehazten ziren; esate baterako, alkatea izendatzea, erregeari zergak ordaintzea, zaldun nahiz bilauekin erregearen osteari laguntza eman beharra —berezi gerra kasuan—, nobleen edo elizgizonen pribilegioak eta abar. Askatasun horiek ez zuten eragin berdina izaten biztanle guztiengan, zeren eta, esate baterako, gutxi batzuk baizik ezin ziren alkate izan, nobleek eta elizgizonek ez zuten zergarik ordaintzen, eta abar.

Foruak Iberiar Penintsula osoko antzinako erresumetan (León, Aragoi, Gaztela eta Nafarroa) hedatu ziren. Baita Frantzian ere. Baina beste leku batzuetan ez bezala, agian Nafarroako Erresuma konkista zezaketen auzokide boteretsuak bazeudelako, foruek esanahi berezia hartu zuten Nafarroan. Nafarroako erregeek foruei zin egin behar zieten, koroatuak izan baino lehen, eta foruak mantendu edo kasua bazen hobetu egin behar zituzten, baina ez okerragotu, halako moduan non subiranoaren eta erresumaren arteko itun bat izaten baitzen. Hain zuzen, itun horrek erregearen autoritatea mugatzen zuen erregeek botere absolutua lortu nahi izateko gero eta joera handiagoa zeukaten garai batean.

Gaur egun, oraindik ere mantentzen eta aplikatzen dira Nafarroan foruetatik heldu diren legeetako batzuk, egungo legedian berretsi eta jasotako legeak. Horietatik eza-gunena denari jarraituz, Nafarroak Estatuarekiko harremanean duen berezitasuna ezarri da, beste autonomia erkidego batzuek ez dutena. Horrela, nabarmentzekoa da Nafarroak zergak zuzenean kobratzen ahal dizkiela bere herritarrei, Estatuari Nafarroan ematen dituen zerbitzuengatik kupo bat ordaintzearen truke. Horrek Nafarroak Espainiako erkidegoen artean duen autonomia areagotzen du.



Joaquín Elizondoren foruen bildumako liburuaren lehen orrialdea

Nafarroako Foru Orokorrak epaileek Nafarroan aplikatu beharreko usadioak, ohiturak eta legeak biltzen zituen. Erdi Aroaren bukaeran, foruen bertsio bat baino gehiago zegoen, eta epaileek, batzuetan, ez zekiten segurtasunez haietako zein aplikatu behar zuten. Hartara, bilduma baten beharra nagusitu zen —denborarekin, bilduma bat baino gehiago egin ziren—, lege zaharrak jasotzeko eta batzeko eta lege berriak sartu ahal izateko.

8.2. Ariketak


Talde txikian:

- Pentsatu eta idatzi hiru arrazoi gizarte edo talde guztietan (familian, lagunartea, ikasgela eta abar) errespetatu beharreko arauak edo legeak egoteko.

- Funtsezko zein desberdintasun edo alde daude foruan jasotako arau edo legeen eta une hauetan Nafarroan egiten diren legeen artean?

- Guztiok arau edo legeak bete ditzagun «indar» bat (esate baterako, kalean polizia, etxean gurasoak, eskolan irakasleak eta abar) egotearen alde baldin bazaudete, eman hiru arrazoi. «Indar» hori egotearen aurka bazaudete, berriz, eman beste hiru arrazoi.

9. Itxiera-mapa



10. Ebaluazioa

1. Antzinako Nafarroako Gorteak ez ziren demokratikoak. Egin iruzkin labur bat tesi hori hiru arrazoirekin justifikatuz.


2. Osatu taula hau

	NAFARROAKO PARLAMENTUA
NORK HAUTATZEN DU	
ZENBATEAN BEHIN	
EGINKIZUN NAGUSIAK	

3. Galdera laburrak:

- Zenbat parlamentari ditu Nafarroako Parlamentuak?
- Osoko bilkuretako Mahaian, zein daude Parlamentuko lehendakariarekin?
- Aipa itzazu lau alderdi edo koalizio Nafarroako Parlamentuan parlamentu-taldea osatu dutenak.
- Nork hautatzen ditu Nafarroako Gobernuako kontseilariak?
- Nork hautatzen du Nafarroako Gobernuako lehendakaria?

4. Osatu taula hau:

- 
- Ekimena
 - proiektua:
 - proposamena:
 - Parlamentuan sartzea:
 - Batzordea:
 - Osoko Bilkura:
 - Aldarrikatzea/Argitaratzea:

5. Nola bila daiteke Interneten Nafarroako Parlamentuari buruzko informazioa?

6. Honako hitz hauen esanahia azaldu:

- Demokrazia:
- Aurrekontua:
- Lege proiektua:
- Gobernu-programa:

7. Zein dira botere exekutiboa, botere legegilea eta botere judiziala estatu edo erkidego batean ordezkatzen dituzten organoak?

8. Egin ondoko testuari buruzko iruzkina:

«Batzuek uste dute gizarte demokratiko batean dena eztabaidatu daitekeela, guztiari buruzko botoa eman daitekeela. Oker daude. Gizarte demokratiko batek, beste ezer baino lehen, balore sendoak behar ditu. Torturaren edo esklabotzaren abolizioa, aukeren berdintasuna... ez dira bozketaz erabaki. Giza eskubideak errespetatzea ez da bozketara ateratzen den proposamen bat: premia bat da. Gizarte demokratikoez batetik balore irmo eta sendoak eta bestetik herritarrek hautaturiko gobernuak bideratzeko metodoak konbinatzen dituzte».

- Zein da ideia nagusia?

- Defenda ezazu ideia nagusi hori hiru argumenturekin:

9. Lan-irtenaldiko nire portaera azaltzen dut

- Gauzei dagokienez:

- Pertsoneri dagokienez:

- Besterik:

10. Honakoak dira gai honetan argi geratu ez zaizkidan gaiak:

11. AUTOEBALUAZIOA.
KOEBAZUAZIOA

11. Autoebaluazioa

Erantzun ondorengo galderei. Unitate honetan ikasi duzunari buruzkoak dira.

1. Zer ikasi dut?

- Parlamentuari buruz:

- Balore demokratikoei buruz:

- Besterik:

2. Nola ikasi dut?

3. Zertarako balio izan dute eta balio izanen dute ikasitakoek?

Nire lan-koadernoan baloratu eta nire iritziz honela daukat:

Oso ongi

Ongi

Hala moduz

Gaizki

Arrazoiak:

Koebaluazioa

Ikasgela-taldeak egin
beharreko ariketa

- Nola baloratzen ditugu Nafarroako Parlamentuari buruz eginiko ikerketa eta Ikasgela Birtualaren erabilera?
- Zein helburu lortu ditugu Lan-irtenaldiaren bitartez eta Nafarroako Parlamentuaren eginkizunak aztertuz?
- Zein zailtasun topatu ditugu?
- Zein izan dira gure indarguneak eta lan honetako onena?
- Zein proposamen eta iradokizun egin ditzakegu lan hau hobetzeko?



PARLAMENTO DE NAVARRA
NAFARROAKO PARLAMENTUA